



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko maiatzaren 17a

38. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Nafarroako Parlamentuaren adierazpen instituzionala, Lorcako herriari bere elkartasuna adierazteko. Ele-  
dunen Batzarrak onetsia (2. or.).

#### G S A I L A:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—San Adriango Udaleko kiroldagiari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina (3. or.).  
—Oinarrizko errentaren kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena (2009-2010), Comptos Ganberak egina  
(25. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren adierazpen instituzionala, Lorcako herriari bere elkartasuna adierazteko.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2011ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Atzo arratsaldean izandako lurrikararen ondorioz Lorcako (Murtzia) herriko bizilagunek bizi duten tragedia ikusita, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak eta Mahaiak erabaki dute ondoko adierazpen instituzionala onestea:

Lehena. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta bere atsekabea adierazi nahi die Lorcako herrian atzo izandako lurrikaran hildakoen eta zauritutakoen familiei eta tragedia horren ondorio suntsitzaileek ukitutako bizilagun guztiei.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herriaren babesa helarazi nahi die Lorcako alkateari, Murtziako Erkidegoko lehendakariari eta Murtziako Legebiltzarreko lehendakariari, eta oro-

bat helarazi nahi die bere konfiantza, Lorcako herriak, beharrezkoa den laguntza guztiarekin, lurrikarak eragindako kalte larriak gainditzen jakinen duelakoa.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuan ordezkariak duten indar politikoek bat egiten dute Lorcako biztanleei doluminak emateko adierazpideekin, eta bere babesa helarazi nahi diete, lurrikarak tragikoki zigortutako hiri horretan denon artean normaltasuna berreskuratzen laguntzeko.

Laugarrena. Nafarroako Parlamentuak dei egiten die Nafarroako erakundeei eta gizarteari, bere babes eta laguntza osoa eman dezaten, egoera tragiko hau gainditzeko.”

Iruñean, 2011ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **San Adriango Udaleko kiroldegiari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urtarrilaren 31n eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak San Adriango Udaleko kiroldegiari buruz egindako fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **San Adriango Udaleko kiroldegiari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Kiroldegiaren eraikuntzari buruzko alderdi garrantzitsuenen eta haren ezaugarrien laburpena (4. or.).
  - II.1. Kiroldegiaren eraikuntzari buruzko laburpena (4. or.).
  - II.2. San Adriango kiroldegiaren ezaugarriak (5. or.).
- III. Helburua, norainokoa eta mugak (5. or.).
- IV. Iritzia (6. or.).
- VI. Iruzkina, ondorioztapenak eta gomendioak (11. or.).
  - VI.1. Hasierako kokalekua (11. or.).
  - VI.2. Bigarren eta behin betiko kokalekua (12. or.).
  - VI.3. Proiektuaren kontratazioa (12. or.).
  - VI.4. Azterlan geoteknikoa (15. or.).
  - VI.5. Igerilekua eta eraikin soziala eta aldage-lak kokaleku berrian egiteko obren kontratazioa (15. or.).
  - VI.6. Kiroldegiaren eraikuntzari buruzko beste gastu batzuk (19. or.).

VI.7. Kiroldegiaren ekipamendua (20. or.).

VI.8. Kiroldegiaren eraikuntzaren finantzaketa (21. or.).

VI.9. Kiroldegiaren kudeaketa (22. or.).

San Adriango Udaleko alkateak behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (23. or.).

Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emaniko erantzuna (24. or.).

#### **I. SARRERA**

San Adriango Udaleko Osoko Bilkurak, 2009ko azaroaren 25ean egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Comptos Ganberari eskatzea auditoria bat egin dezan, ekonomikoa eta legezko prozedura betetzeari buruzkoa, udal igerilekuen kontratazio prozesu osoari eta obren betetzeari dagokionez, proiektuaren idazketa esleitu zenetik obrak San Adriango Udalarari eman arte.”

Eskaera hori betetze aldera, Comptos Ganberak 2010erako duen jarduketa-programaren barruan sartu da San Adriango Udalaren kirol instalazio berrien –hemendik aurrera, “kiroldegi” deituko diegu– erregulartasunaren fiskalizazioa.

San Adriango udalerrak 6.201 biztanle ditu, 2009ko urtarrilaren 1eko erroldaren arabera.

Lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako talde batek egin du, 2010eko ekainetik abuztura bitartean. Era berean, Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Txostena bost epigrafetan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarrenean, kiroldegiaren eraikuntzari buruzko alderdi garrantzitsuenen eta haren ezaugarrien laburpen bat egiten da; hirugarrenean, lanaren helburuak, norainokoa eta mugak azaltzen dira; laugarrenean, iritzia agertzen da;

azkenik, bosgarren epigrafeak zehaztu eta azalzen ditu iritsitako ondorio orokorrak eta iruzkinak.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu San Adriango Udaleko langileei.

## **II. KIROLDEGIAREN ERAIKUNTZARI BURUZKO ALDERDI GARRANTZITSUENEN ETA HAREN EZAUGARRIEN LABURPENA**

### **II.1. KIROLDEGIAREN ERAIKUNTZARI BURUZKO LABURPENA**

Udako igerileku zaharren osasungarritasun publikoa zela-eta, udalak, 2000. urtean, proposatu zuen San Adrianen kiroldegi berria egitea.

Hasiera batean, bi fase proposatu ziren instalazioei dagokienez:

1. fasea: udako igerileku balioaniztuna, haur txikientzako igerilekua, aldagelak eta eraikin soziala.

2. fasea: igerileku estalia, kirol pistak eta eraikin sozialaren eta gainerako instalazioen handitzea.

Administrazio prozesua hasi zen, aipatutako faseetatik lehenbizikorako soilik. Halatan:

- Hura egiteko lurzorua zehaztu zen, El Pontigón izeneko eremuan, erabaki baitzen hura zela egokiena ikuspuntu teknikoetik; izan ere, 100.000 metro koadroko lurzatia behar zen, eta udalerrian ez zegoen halako besterik. Gainera, proiektuak hartzen zituen lursailen erdia baino gehiagoren jabe zen Udala, eta nabarmentzekoa zen zerbitzu-erakundearen gertutasuna, lursailak behar bezala urbanizatzeko egin beharreko lotuneak egite aldera. Lursailen osotasuna lortze aldera, hirigintza arloko aldaketa bat egin zen –lurzorua landa-lurzoru gisa kalifikatuta zegoen, eta ekipamendurako erabilerako lurzoru urbanizagarri bihurtu zen–, eta premiazko desjabetzeko prozedura gauzatu zen.

2001eko martxoan, San Adriango kiroldegi berriaren 1. fasea egiteko obraren proiektua idazteko eta zuzendaritza fakultatiborako laguntza-kontratua esleitu zen, 72.506,10 euroko zenbatekoan<sup>(1)</sup>.

- Esleipen-hartzaileek 2001eko martxoan aurkeztutako oinarritzako proiektuan, obra guztien aurrekontua 2,2 milioi eurokoa zen. Hala ere, 2002ko apirilean aurkeztutako behin betiko proiektuan, instalazioen aurrekontua 3,7 milioi eurokoa zen, eta bertan sartzen zen pilotaleku estali bat

eraikitzea, baina azkenean pilotalekua ez zen egin.

- Diru-laguntza eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari, udako igerilekuak egiteko. 0,3 milioiko behin-behineko diru-laguntza eman zitzaion, baina, azkenean, diru-laguntza ukatu zitzaion, Udalak ezin izan baitzuen lurzatien jabetza eta erabilgarritasuna egiaztatuz, desjabetzeko prozedura amaituta ez zegoelako.

2005ean, San Adriango arau subsidiarioetako beste hirigintza-aldaketa izapidetzea hasi zen, besteak beste, “herritarrek eskari garrantzitsuenei erantzuteko xedez, eta horien artean daude haurtzaindegia handitzea eta kiroldegia egitea”. Egituzko aldaketa hori AR-17 eremu homogeenan egin zen –geroago AR-2 izena eman zitzaion–, eta haren ondorioz lurzoru urbanizaezinak lurzoru urbanizagarri sektoretan bihurtu ziren. Hirigintzako plangintza berri horretan kirol ekipamendurako eremu bat sartu zen kiroldegi berria egiteko; hortaz, El Pontigongo eremua ez zen jada erabiliko.

Kokaleku berria zehaztuta, 2006ko otsailean kiroldegia egiteko proiektu berri bat aurkeztu zen. Une hartan, proiektuak “San Adriango Igerileku Estalia” izena hartu zuen, eta honako egitura zuen:

- Estalki teleskopikoko igerilekua, udan eta neguan erabil daitekeena, honakoek osatua: kirol igerilekua, igeri egiten irakasteko igerilekua eta hidromasajerako igerilekua.

- Instalazioen aretoa (instalazioak eta bainu-erakundeak).

- Aldagelak.

Aipatu obraren aurrekontua 4,4 milioi eurokoa zen, urbanizazio-lanen kostua barne. Udalaren Osoko Bilkurak 2006ko apirilean onetsi zuen proiektua, eta, hala, hasiera eman zitzaion obrak kontratatzeko espedienteari. Nabarmentzekoa da, geroago izanen dituen ondorioengatik, proiektua onetsi zela nahitaezkoa zen azterketa geoteknikoa egin gabe.

2006ko irailean, Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen obrak esleitzea 3,6 milioi eskaintza eta 9 hilabeteko betetze-epea aurkeztu zuen enpresen aldi baterako batasun bati. Obren zuinketa- eta hasiera-akta irailaren 28an sinatu zen. Komenigarria da zehaztea igerileku estalien, instalazioen eta erakinen obrak bakarrik esleitu zirela; kanpo-urba-

(1) Txosten honetako diru-kopuru guztiak eurotan adierazita daude, sortu ziren data kontuan hartu gabe.

nizazioko obrak eta instalazioen ekipamendukoak era berezian kudeatu ziren.

Obra-kontratuaren betetzea 19 obra ziurtapenetan oinarritzen da. Ziurtapenek 5,3 milioi egiten dute guztira, eta adjudikazioaren muntaren gaineko desbideraketa ehuneko 46koa da.

Azkenean 264.829,80 euro fakturatu ziren proiektuaren idazketaren eta obren zuzendaritzaren ondoriozko gastu gisa.

Hasieran, udalak aurreikusi zuen kiroldegia diru-laguntzen eta ondare-salmentaren bidez finantzatzea; hala ere, gastua handitzeak eta aipatu iturrietatik lortutako baliabideak txikiagoak izateak udala behartu dute zorpetzera eta dagozkion aurrekontuetako kontusailen kreditua handitzera, obren finantzaketa ziurtatze aldera.

Era berean, aipatu behar da instalazioek zeharkako kudeaketa izanen dutela, eta, ondorioz, obrek jasandako BEZa Foru Ogasunak "itzuli beharrekoa" dela, eta, hala izanda, eskatu egin zen.

## II.2. SAN ADRIANGO KIROLDEGIAREN EZAUGARRIAK

20.000 m<sup>2</sup>-ko azaleratik, 4.000 m<sup>2</sup> inguru igerilekuei dagozkie, 1.900 m<sup>2</sup> eraikin sozialari, eta 14.000 m<sup>2</sup> inguru lorategiari.

Ondoko guneak ditu:

A. Estalki teleskopikodun igerilekua (udan nahiz neguan erabiltzeko) eta harmailak:

- Kirol igerilekua (25 m x 12,5 m).
- Igeri egiten erakusteko igerilekua (12 m x 6 m).
- Hidromasajerako igerilekua (5 m x 5 m).
- Haur txikientzako igerileku biribila, 50 m<sup>2</sup>-koa.

B. Gune termala

- 14 m<sup>2</sup>-ko terma.
- 15 m<sup>2</sup>-ko lurrun-bainua.
- Izotz-iturria.
- Dutxa bereziak.

C. Fitness gunea

- 15 m<sup>2</sup>-ko fitness aretoa.
- 120 m<sup>2</sup>-ko jarduera aretoa.
- 120 m<sup>2</sup>-ko spinning aretoa.

D. Aldagelak

- Gizonezkoen aldagela, emakumezkoena eta umeena guztira, (350 m<sup>2</sup>).

E. 300 m<sup>2</sup>-ko kafetegia eta jatetxea.

F. 14.000 m<sup>2</sup>-ko lorategiak eta merendero-gunea.

G. Bi padel pista eta tenis pista bat.

Instalazio horiek errentamendu bidez kudeatzen dira.

## III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, eta udalaren eskaria kontuan hartuta, San Adriango kiroldegiaren eraikuntzari buruzko fiskalizazioa egin dugu.

Guk egindako lanak helburu hauek izan ditu:

1. San Adriango Udalaren kiroldegi berria esleitzeko eta eraikitzeko prozedurari aplikatzekoa zaien legeriaren betetze-maila egiaztatzea.

2. Arestian aipatu instalazio guztiek udalari ekarri dioten kostuaren arrazoizkotasuna egiaztatzea.

3. Instalazio horien kudeaketaren emaitzak aztertzea, funtzionamenduan jarri zenetik.

Lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan eta kontratazioari buruzko gida juridikoan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz gauzatu da, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak erabili dira.

Norainokoari dagokionez, aztertu dira udalean kontratazio-prozesuari eta obrak egiteari, proiektuei eta ekipamenduari buruz dauden dokumentazioa eta espedienteak, Ganbera honen metodologiari jarraikiz. Era berean, aztertu dira obra horien ondoriozko zenbateko osoaren arrazoizkotasuna, finantzaketa eta ondorengo kudeaketa.

Zehazki, ondoko dokumentazioa aztertu da funtsean:

– Proiektuaren eta obren zuzendaritzaren kontratazioa.

– Obren kontratazioa.

– Obren zuzendaritza fakultatiboaren txostena, aurreko obren atzerapena justifikatzen duena. Comptos Ganberaren eskariz eman zuen.

- Kiroldegiko beste obra batzuk.
- Ekipamendua eta beste gastu batzuk.
- Instalazio berrien finantzaketa.
- Lurzatiak saltzea.
- Jasotako diru-laguntzak.
- Lehen kokapenaren ondoriozko eragin ekonomikoa.
- Kontabilitate- eta aurrekontu-erregistroak.
- Bideragarritasun plana.
- Igerilekuen kudeaketa.

Kiroldegiaren obrak 2001ean hasi zirenez eta horiek jasotzeko akta 2009ko urtarrilean sinatu zenez, udalak, kontratazioari buruzko espedienteak izapidetzerakoan, bi arau hauek aplikatu ditu; hain zuzen, une bakoitzean indarrean zegoena: Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea eta Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legean toki entitateentzat ezarritako berezitasunekin.

Era berean, komenigarria da zehaztea, instalazioen eraikuntzari buruzko barne-kontrollean duen eragina dela-eta, aipatutako aldiak bi idazkari eta hiru kontu-hartzaile aritu direla lanean udalean, hurrenez hurren.

Gure lanak izan dituen mugak honakoaren ondorio dira:

- Kiroldegiaren eraikuntzaren kudeaketari aplikatutako prozedurek ez dute ziurtatu udaleko administrazio-zerbitzuek eta zerbitzu juridiko eta ekonomikoek beti eskura izatea beharrezkoa zen informazioa eta dokumentazioa, modu egokian izapidetu eta beharrezko barne-kontrola aplikatzeko.

- Obren kontratuak izandako aldaketek, proiektua idatzi zuen lan-taldeari geroago eginiko esleipenek eta kiroldegiko ekipamenduen erosketek ez dute administrazio-izapidetzerik izan.

- Udalarari espresuki eskatu arren, ezin izan dugu ondoko dokumentazioa eskuratu:

- a. 16. ziurtagiritik 19.era bitartean aplikaturiko prezioen berrikuspenaren –123.075,24 eurokoa– justifikazio tekniko eta dokumentala.

- b. Obren zuzendaritza fakultatiboak obraren likidazioarekin batera aurkeztutako txostenean

aipatzen duen “hitzarmenaren” oinarri dokumentala, zeinak esaten baitu hitzez hitz:

“Zehazki, likidazioak igerileku estalien eta aldagelen obrei dagozkien kapitulu guztiak jasotzen ditu, San Adriango Udalak eta enpresen aldi baterako batasunak 2008ko urtarrilaren 15ean hitzartutako “prezio itxiaren” proposamenari jarraikiz...”

Ez dakigu hitzarmen horrek obren amaierako likidazioan izan zezakeen eragina.

#### IV. IRITZIA

Kontuan hartuta planteatutako helburuak eta izandako mugak, egindako lanetik honako iritzi hau ateratu dugu:

Aldez aurretik, komenigarria da hiru gai nabarmentzea, eragin garrantzitsua izan dutenak kiroldegiaren obren izapidetzean eta egitean, eta, funtsean, asetzekoak ziren betebeharren zehaztapen desegokiaren eta plangintza eta exekuzio okerraren ondorioz sortu direnak:

- Proiektuaren idazketa esleitu ondoren, aldatu egin zen kiroldegiaren kokaleku fisikoa.

- Kokalekua aldatzearekin batera, igerilekua ezaugarriak ere aldatu ziren –udako igerilekua izateko mistoa, estalki teleskopikoduna izatera igaro zen, udan nahiz neguan erabili ahal izateko–, bai eta kiroldegiaren instalazioak ere.

- Instalazioak 2008ko udan irekitzeko premia, igerileku zaharra ezin baitzen erabili, osasungarritasun publikoko arrazoiak tarteko.

Inguruabar horiek eragin esanguratsua izan dute aipatu obren bilakaeran, denboran izandako ibilbide luzea ahaztu gabe; izan ere, 2000. urtean hasi ziren diseinatzen eta 2009ko hasieran jaso ziren obrak. Bitartean hiru udalbatza desberdin izan dira.

Ez da lagungarria izan, ezta ere, obra horien kudeaketa egokirako, denbora tarte horretan udal guztietan oinarritutakoak diren idazkaritzako eta kontu-hartzailetzako zerbitzuak bi eta hiru pertsona desberdinek bete izana, hurrenez hurren. Are gehiago: 2007ko martxotik 2008ko apirilera kontu-hartzaile lanpostua hutsik egon zen.

1. helburua. San Adriango Udalaren kiroldegi berria kontratatuzko eta eraikituzko prozedurari aplikatzeko zaion legeriaren betetze-maila egiaztatzea.

1. Oro har, ondoriozta dezakegu behin eta berriro urratu dela San Adriango kiroldegia osatzen duten elementu desberdinei aplikatzeko

zaien kontratazioari buruzko araudia. Horra azpimarratzen ditugunak:

a. Proiektua idazteko eta zuzendaritza fakultati-borako laguntza-kontratuaren esleipena –2000ko abendutik 2002ko apirilera–.

- Kontratazio Mahaiaren osaketan ageri dira, Gobernu Batzordeko kideez, udal arkitektoaz eta udal idazkariak gain, Nafarroako Kirol Institutuko teknikari bat eta Arkitektoen Elkargo Ofizialak izendatutako arkitekto bat. Mahai horrek eginiko bileren aktetan ez da ageri ez deialdia ez bi kide horiek agertu izana; aldiz, ageri da kanpoko aditu baten parte-hartzea, alkateak eskatuta, hizpidea-rekin baina botorik gabe, proposamen teknikoak aztertze fasean. Ez dago jasota Udalaren Osoko Bilkurak Mahaiaren osaketari buruzko aldaketa horiek onetsi izana.

- Kiroldegiaren eraikuntzari buruzko plangintzan, exekuzioan eta likidazioan izandako zalan-tzen ondorioz, talde esleipen-hartzailearen zerbitzu-aldiak gainditu egin du kontratuan ezarritako lau urteko indarraldia, bai eta Nafarroako Adminis-trazio Publikoetako Kontratuari buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeak arauturiko bi urteko berariazko luzapena ere. Horrenbestez, 2005etik aurrera eginiko esleipenak zegokien administrazio-espeditentea izapidetu gabe egin dira, eta zuzenean esleitu dira, eskaintzarik eskatu gabe. Zehazki, kokagune berriaren behin betiko proiektua, 88.794,98 euroko kostua izan zuena, eta hasiera batean esleitutako obren zuzendaritzaren gehie-gizko kostua, 84.814,37 euro egiten duena.

- 84.814,37 euroko esleipena 264.829,80 euro-koa bihurtu zen azken fakturazioan, proiektuaren idazketa eta obren zuzendaritza barne.

- Hasierako kokalekuko behin betiko proiektua-ren aurkezpena –2002ko apirila– aurreikusitako-arekiko urtebeteko atzerapenez egin zuten eslei-pen-hartzaileek, atzerapena dokumentu bidez justifikatu gabe eta baldintza-orrietan aurreikusita-ko zehapenak aplikatu gabe, atzerapena esleipen-hartzailearen erruz gertatu izanaren kasuan. Atze-rapena justifikatuta egon zitekeen desjabetze-prozeduraren ondoriozko arazoengatik.

- Esleipen-hartzaileak hasiera batean aurkeztu-tako fakturan –2002ko martxoa– azterketa topo-grafikoen eta zundaketen kontzeptua jasotzen da, baina azterketa horiek ez dira espeditentean ageri. Geroago, kiroldegiaren kokaleku fisikoa eta konfi-gurazioa aldatutakoan, Osoko Bilkurak onetsitako proiektu tekniko berrian ez ziren azterketa horiek jasotzen, eta, ondoren, beste enpresa batekin kon-tratatu ziren, 5.568 euroren truke. Udal idazkariak egoera hori nabarmendu zuen ohar baten bidez,

eta, gure iritzian, udalak bidezkoak ziren erantzuki-zunak eskatu behar izanen zizkion proiektu berria idatzi zuenari. Kiroldegiaren zimendatzean eginiko aldaketen ondorioz –proiektuan aurreikusitakoak–, obren kostuak 0,6 milioi egin zuen gora.

b. Kiroldegiaren eraikitze-lanak.

- Obren ziurtagirien baturak 5,3 milioi egiten du; hau da, esleitutako zenbatekoa baino % 46 gehiago. Ez dago jasota nork agindu zituen formalki aldaketa horiek, ez eta hasierako kontratua-ren gainean egindako aldaketen izapidetzerik edo esleipen-hartzaileak gordailuan utzitako abalaren doikuntzarik ere.

- Ez daude justifikatuta espeditentean udalak eta esleipen-hartzaileak hitzartu eta bi urte geroa-go lortu zen prezio itxiaren proposamenaren baldintzak. Obren zuzendaritzak igorritako txostenaren arabera, esleipen-hartzailearen eta udalaren artean hitzartutako prezioa 4,14 milioi eurokoa da, “aldaketa, prezio berri, berrikuspen edo neurketa-rik gabe”. Ez dakigu zein eragin izan duen horrek, izan badu, amaierako prezioan.

- Lau ziurtagiriren bidez aurkeztu zen prezioen berrikusketaren zenbatespena –guztira, 123.075,24 euro– ez dago dokumentu bidez eta teknikoki justifikatuta espeditentean.

- Espeditentean ez dago zehaztuta zein den kontratuaren esleipen-hartzaileari dagokion eran-tzukizun zatia obrak amaitzeko izandako atzerape-na dela-eta.

c. Ekipamenduak eta kiroldegiaren eraikuntzari buruzko beste gastu batzuk: kontzeptu horiengati-ko 0,74 milioi euroko gastuen gainean, 0,57 milioi –ehuneko 77, alegia– beharrezkoa den administra-zio-espeditentea izapidetu gabe esleitu dira. Hala ere, oro har, agertzen dira zenbait hornitzaile-ri egi-niko eskaintza eskaerak.

Aurreko urraketatik honako gomendio hauek eratoritzen dira:

*Udalak, entitate publikoa den aldetik, zorrozki bete behar du administrazio-kontratazioari buruz-ko araudia.*

*Etorkizunean, munta horretako proiektuak egi-terakoan, entitate publikoek behar bezala zehaztu eta planifikatu behar dituzte ase nahi diren bete-beharrak, horiek asetzeko behar diren baliabide edo ekipamenduak edo baliabideak, eta horien kostua eta finantzaketa.*

*Obren proiektuak behar bezala kontrolatu eta berrikusi behar dira.*

*Kiroldegiaren lehen kokalekuan, huts eginda-koan, eginiko desjabetzeetatik lortutako lursailen xedea edo helburua zehaztu behar da.*

2. Aplikaturiko kudeaketa prozedurak. Oro har, inbertsio honen kudeaketa moduak ez du ziurtatu udaleko barne-kontrol juridikoa eta ekonomikoa egin behar zuten zerbitzuek beti eskura izatea beharrezkoa zen informazioa eta dokumentazioa, nahitaez egin beharreko aholkularitza, izapidetzea eta kontrola modu egokian egiteko. Eta, hala, atzeman da ezinbestekoak diren txosten juridikoak eta kontu-hartzailetzakoak falta direla, ekipamenduei eta kanpoko urbanizazioari dagokienez.

Horrekin lotuta, udaleko kontu-hartzailearen lanpostua aldi baterakoa eta behin-behinekoa izatea garrantzitsua izan da egoera hori, neurri batean, ulertu ahal izateko. Are gehiago: 2007ko martxotik 2008ko apirilera kontu-hartzaile lanpostua hutsik egon zen.

2008ko maiatzetik, egungo udal kontu-hartzaileak zenbait eragozpen agertu ditu obra horri dagokionez; hain zuzen, ondokoei buruz:

- Obren zuzendaritza dela-eta aurkeztutako ordainsariak, kreditua nahikoa ez izategatik.
- Obrei buruzko zenbait ziurtagiri, aurrekontuetan ez zegoelako krediturik.
- Gastuak kudeatu izana ezinbestekoa zen kontratazio-espeditzea izapidetu gabe.

Eragozpen horiek ez dira aintzat hartu, edota udal organoek baliozkotu egin zituzten, bai eta aurrekontuan krediturik ez izategatik eginikoak ere, eta haien ordainketa baimendu eta egin zen.

Bestalde, ikuskaturiko dokumentazioan atzeman denez, proiektuak idazteaz eta obren zuzendaritzaz arduratu zen taldeak ez zion laguntza tekniko egokirik eman udalari, jarduera horietarako kontratatua izan bazen ere.

Hauek gomendatzen ditugu:

*Udalak egiten dituen administrazio-egintza guztiak Nafarroako toki entitateei aplikatzekoa zaien legerian ezarritako baldintza eta izapideen arabera kudeatu behar dira.*

*Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriro adierazten duenez, foru erakundeek bidezkoak diren lege arloko neurriak hartu behar dituzte behin betiko konponbidea emateko Nafarroako toki entitateetako idazkarien eta kontu-hartzaileen arazoari, egin beharreko kontrol-lana modu egoki, arduratsu eta independentean egin dezaten.*

2. helburua. Arestian aipatu instalazio guztiek udalari ekarri dioten kostuaren arrazoizkotasuna egiaztatzea.

3. Aztertutako informazioaren arabera, San Adriango kiroldegiaren kostu osoa 6,4 milioikoa izan da, BEZa barne, edo 5,5 milioikoa, BEZa kenduta. Zenbateko horien zehaztasunak ondoko koadroan agertzen dira:

Kontzeptua	Zenbatekoa (BEZa barne)	Zenbatekoa (BEZik gabe)
Proiektuaren erredakzioa	158.263,60	136.434,14
Obren zuzendaritza	106.566,21	91.867,42
Obren ziurtagiriak	5.342.021,39	4.605.190,85
Tenis eta padel pistak	121.961,38	105.139,12
Kanpoko urbanizazioa	258.118,93	222.516,32
Harmailak	18.949,75	16.335,99
Ekipamendua	308.431,67	265.889,37
Bestelakoak	42.011,26	36.216,60
Guztira	6.356.324,19	5.479.589,81



Inbertsio horrek 900 euroko gastua ekarri du San Adriango biztanle bakoitzeko.

Kostu horri gehitu beharko litzaioke lehen

kokalekuari loturiko desjabetzeen ondoriozkoa –1,2 milioi euro, guztira–. Hala, prozesu guztiaren kostua 7,6 milioi eurokoa izan da (BEZa barne), edo 6,7 milioi eurokoa (BEZa kenduta):

	Zenbatekoa (BEZa barne)	Zenbatekoa (BEZik gabe)
Kiroldegiko obren amaierako kostua	6.356.324,19	5.479.589,81
1. kokalekuko desjabetzeen kostua	1.209.309,04	1.209.309,04
Kostua, guztira	7.565.633,32	6.688.898,85

2009ko abenduaren 31n, oraindik ordaintzeko daude desjabetzeei loturiko 1,1 milioi ordainsariak, desjabetuekin akordio bat lortzeko zain. 2011ko hasierako aurrekontuan, 0,4 milioi euroko gastua dago aurreikusita kontzeptu hori dela-eta.

*Gomendatzen dugu bidezkoak diren neurriak har daitezela ordaintzeke dagoen desjabetzeeta-*

*ko zorra ordaintzeko, eta interesdunekin batera bila daitezela bi aldeentzat egokiak diren ordaintze formulak.*

4. Ondoko koadroan agertzen da obren zenbateko osoaren (BEZa barne) eta izan diren proiektu desberdinen gastu-aurreikuspenen –horien berarizko edukia kontuan hartu gabe– alderaketa:

	Zenbatekoa	Indizea	Indizea
Hasierako kokalekuaren aurreikuspenak	3.767.042,23	100	-
Behin betiko kokalekuaren aurreikuspenak	4.368.335,56	116	100
Kiroldegien amaierako kostua	6.356.324,19	169	146

Hau da, kiroldegien amaierako kostua hasierako aurreikuspena baino bi heren handiagoa da; aldaketa horren arrazoia da hasierako proiektuan aurreikusitako instalazioek ez dutela zerikusirik egiazki eraiki direnekin, ez edukiari ez kokaleku geografikoari dagokionez.

Bigarren kokalekuko aurreikuspenari dagokionez, amaierako kostua ia ehuneko 50 handiagoa izan da, kontratu aldaketari buruzko inolako izapiderik jasota ez badago ere. Koadro honetan azaltzen da desbideratze horien izaera:

Desbideratzeak	%
Proiektuaren aldaketak (neurketen areagotzea eta/edo obra unitate berriak)	34
Proiektuan aurreikusten ez ziren kapitulu berriak	9
Prezioak berrikustea	3
Guztira	% 46

Desbideratze horiek sortzen dira kiroldegiko instalazioak modu desegokian zehazteagatik, eta proiektua osoa ez izateagatik; izan ere, hura gauzatzerakoan, ia kapitulu guztietan egin dira funtsezko aldaketak.

Bestalde, zehaztu beharrekoa da ezen, 2007ko amaiera aldera, eginiko obren prezioak esleitutako zenbatekoarena ehuneko 20 gainditzen zuela jada, hori izanik Nafarroako Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legeak ezarritako gehieneko muga hasierako kontratua aldatu eta kontratua kontratista nagusiari esleitzeko. Gure iritzian, beharrezkoa zen kontratua esleitzeko beste prozedura bat egitea.

5. Hasiera batean, udalaren asmoa zen kiroldegiaren eraikuntza ia bere osotasunean finantzatzea diru-laguntzen eta ondare-salmenten bidez. Instalazioek kudeaketa ez-zuzenekoa izanen dutenez, obrek jasandako BEZa Foru Ogasunak "itzuli beharrekoa" da.

Gastuaren areagotzeak eta arestian aipatu iturrietatik lortutako baliabideak murrizteak –bereziki lurzatiaren salmentatik etorritakoak, eraikuntzaren sektorearen krisia dela-eta– finantzaketa-beharri- zana berriak sorrarazi dituzte, lau milioitan zenbatu direnak.

Defizit hori maileguen bidez eta aurrekontuetan diru gehiago jarrita finantzatu da, eta horrek egoera ekonomiko zaila eragin du udalean.

Laburbilduz, kiroldegiaren finantzaketa ondokoetatik dator:

- Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza, igerileku estalia eta padel pistak egiteko: 0,9 milioi euro.
- Udalari banaketa unitatean zegokion hirigintzako aprobetxamendua gauzatu zen lurzatiaren salmenta: 1,7 milioi euro.

- Obra hauetarako eta Udalak eginiko gainerako inbertsioetarako eskatu zen mailegua: kiroldegirako 2,2 milioi euro erabili zirela uste da.

- Gainerakoa, aurrekontuetako bestelako baliabideetatik.

*Hau da gure gomendioa; halako muntako proiektuak egiterakoan, finantzaketa-iturriak behar adinako zorrotasun tekniko eta zuhurtasunez zehaztu behar dira, are gehiago egungoa bezalako zalantza ekonomikoko egoeran.*

3. helburua. Instalazio horien kudeaketaren emaitzak aztertzea, funtzionamenduan jarri zene-tik.

6. Udalak erabaki zuen instalazio horiek errentamendu bidez kudeatzea. Horretarako, bideragarritasun ekonomikoari buruzko azterlan batzuk egin ziren eta, horien ondorioz, instalazioen kudeaketa plan bat prestatu zen, egoera desberdinei zegozkien aurreikuspen ekonomikoak –ezkorra, normala eta baikorra– eta ustiapen-emaitzei buruzko hipotesiak jasotzen zituena. Edonola ere, kalkuluen abiapuntua da gutxienez 2.000 abonatu lortu behar direla instalazioen kudeaketa ekonomiko-koa bermatu ahal izateko.

7. Errentamendu-kontratua 2008ko ekainean esleitu zen, eta ezarri zen errentariak urteko kanon finko bat ordainduko zuela –3.000 euro gehi BEZa–; era berean, aurreikusi zen kudeaketaren emaitzak positiboak izanez gero, irabazia proportzionalki banatuko zela udalaren eta errentariaren artean, zenbatekoaren arabera ezarritako ehunekoak aplikatuta.

8. Txosten hau idatzi den egunean, kudeaketaren emaitzak defizitarioak izaten ari dira; funtsean, aurreikusitakoak baino abonatu gutxiago lortu dire-lako. Hala, eskuratu dugun informazioaren arabera, ondoko koadroan azaltzen da instalazio haue-tako bazkide kopuruaren bilakaera eta haien jatorri geografikoa:

	2008ko abendua	2009ko iraila	2010eko abuztua
Abonatu kopurua	1.604	1.447	1.218
San Adriango abonatuak	1.460	1.273	1.023
San Adriangoak ez diren abonatuak	144	174	195

Ikus daitekeenez, ekitaldi batean ere ez da lortu kudeaketa planean aurreikusitako gutxieneko abonatu kopurua –2.000–; gainera, herrikoak diren abonatuaren kopurua ere etengabe ari da murrizten.

Egoera hori finantzaketa zailtasun garrantzitsuak eragiten ari zaizkio instalazioen errentariari, halako moduz non enpresa hori adierazten ari baita kontratua desegiteko eskatuko duela.

2010ean, kontu-hartzailetzak eragozpen txosten ez-etentzailea eman zuen, eta bertan azaldu zuen ez zegoela ados udalaren eta enpresa errentariaren arteko kontratua ez betetzearekin. Hala, ondoko gertakariak aipatzen ditu:

- Udalak ez dio esleipen-hartzaileari kontsumitutako uraren gastua fakturatu.
- Udala brigada da berdegunearen zaintzaz arduratzen dena.
- Esleipen-hartzaileak ez dio ordaindu udalari 2009. urteari zegokion kanon finkoa.
- Errentariak ez du arrisku anitzeko aseguru polizarik kontratatu instalazioen eta ekipamenduen gainean. Udala bere instalazioen gainean aseguru berri bat kontratatzeari buruz egiten ari den azterketetan kirolegia ere kontuan hartu da.

2010eko azaroaren 30ean, alkateak ebazpen bat eman zuen, zeinaren bidez errentariari eskatu baitzitzaion kontratutik eratorritako aurreko betebeharrak bete zitzaizkion, eta, era berean, agindu baitzen kontabilitatean kontuan har zitezkeen San Adriango Udalaren aldeko eskubideak, bidezkoa izanez gero.

*Gure gomendioa da: inguruabar ekonomikoek ez badute bideragarria egiten errentamendu-kontratua, Udalak indarrean dagoen legeriak ezarritako izapideak erabili behar dituzke oreka finantzarioa berrezartzeko edota kontratua desegiteko.*

Laburbilduz eta ondorio gisa, esan daiteke San Adriango kirolegiaren eraikuntzan modu nabarmenean urratu direla kontratazio publikoari buruzko oinarriko printzipioak. Urratzearen arrazoiak hauek izan dira:

- Diseinu eta izapidetze prozesu luzea, non esku hartu baitute hiru udalbatza desberdinek.
- Plangintza desegokia, instalazio horiekin ase beharreko beharrezan, kokalekuari, diseinuari eta finantzaketari dagokienez.
- Proiektu osatu gabea, amaitzen eta arestian aipatu aldaketetara moldatzen joan zena, eta, hori dela eta, betetzean ere aldaketa ugari izan zituen.

- Obrak egiteko premia, instalazioak 2008ko udan jar zitezkeen funtzionamenduan.

- Obren zuzendaritzak luzatutako ziurtagirietan aplikaturiko prezio-berrikusketaren zenbatespenak justifikaziorik ez izatea, eta horrek izan zezakeen eragina aldean artean hitzartutako amaierako prezioa zehazterakoan.

- Administrazio publiko guztietan galdagarriak diren kudeaketa, kontrol eta aholkularitza mekanismoak ez aplikatu izana izapidetze-prozesuan. Hori are larriagoa izan da, kontu-hartzaile eta idazkari lanpostuak behin-behinekoak zirela kontuan hartzen badugu.

Jarduketa horien guztien ondorioz, kostua nabarmen areagotu da, eta horrek eragin du udalak zailtasun finantzario handiak izatea kostu hori ordaintzeko, eginiko zenbait gasturen helburua ez betetzea –hasierako proiektua eta desjabeturiko lurrak–, eta zenbait jarduerari dagokienez, kontabilitatearen arloko erantzukizunen zantzuak izatea –horiek IV. atalean daude jasota, 1. ondorioaren a) eta b) letretan–.

Horretaz gain, baliteke instalazio horiek gehiegizkoak izatea San Adriango biztanleen benetako beharrezan asetzeko.

## **VI. IRUZKINAK, ONDORIOZTAPENAK ETA GOMENDIOAK**

Ondoren, eraikuntza-prozesuko gertakari nagusiak azaltzen dira, bai eta Comptos Ganberan eginiko azterketatik eratorritako ondorioak, iruzkinak eta gomendioak ere.

### **VI.1. HASIERAKO KOKALEKUA**

- Hasiera batean, udako igerilekua El Pontigón izeneko aldean egin behar zen. Alde hori lurzoru urbanizaezin gisa kalifikatuta dago hirigintzako arauen arabera. 102.552 m<sup>2</sup> –ko azalera du eta ondoko arrazoiak tarteko aukeratu zen:

“El Pontigón izeneko eremua da egokiena ikuspuntu teknikoan; izan ere, 100.000 metro koadroko lurzati behar da, eta udalerrian ez dago halako besterik. Gainera, proiektuak hartzen dituen lursailen erdia baino gehiagoren jabe da udala, eta nabarmenezkoa da zerbitzuetako sarean gertatzen diren lursailak behar bezala urbanizatzeko egin beharreko lotuneak egite aldera.”

- 2001eko abuztuan, Nafarroako Gobernuak behin betiko onetsi zuen aipatu aldean igerilekua eraiki ahal izateko beharrezkoa zen hirigintzako aldaketa.

- 2002ko apirilean, Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen obrek ukitutako ondasun eta eskubi-deen desjabetzerako premiazko prozedurari hasiera ematea. Premia justifikatzeko, “igerileku zaharren osasun publikoko arrazoiak” alegatu ziren. Desjabetutako metro koadro bakoitzaren prezioa 7,21 euroan finkatu zen, tasazio bidez.

- Prezio hori aintzat hartuta, desjabetzeen ondoriozko 146.487,05 euroko ordainsariak ordaindu zitzaizkion jabe multzo bati.

- Ukitutako gainerako jabeek prezioaren aurka errekurtsua aurkeztu zuten, eta, 2005eko azaroan, Nafarroako Desjabetzapeneko Epaimahaiak erabaki zuen orubeen balio justua 23,78 eurokoa izanen zela metro koadro bakoitzeko, gehi ehuneko 5, afekzio-sari gisa. Horretaz gain, ukitutako beste jabe batek Nafarroako Auzitegi Nagusira jo zuen, eta 66,60 euroko desjabetze-balorazioa lortu zuen metro koadro bakoitzeko.

- Ordaintzeke dauden kalte-ordainek 817.178,65 euro egiten dute, eta, 2009ko abendua bitarte, 245.643,34 euroko interesak sortu dituzte udalaren aurka.

- Udalaren zailtasun finantzarioen ondorioz, 2008ko azaroan, Osoko Bilkurak onetsi zuen jabe horiekin adiskidetasunezko hitzarmenak sinatzea, ordainketa bost urtetan zatitzeko, luzapen horrenatik interesik sortu gabe. Ez da halako hitzarmenik sinatu, aipatu jabeek ezezkoa eman baitzuten.

- Txosten hau idatzi den unean, desjabetze prozesuaren egoera honakoa da:

- Ez da xede berririk aurreikusi desjabeturiko lurzatiarentzat.

- Interesdunek ez diote uko egin espresuki leheneratze horri –dirudienez, hori izan zen udalak proposatu ziena–.

- Jabeek eta udalak ez dute lortu bi aldeen interesak asebeteko dituen ordainketa formularik adostea.

- 2009ko abenduaren 31ra bitartean, desjabetze prozesuaren kostu osoa 1.209.309,04 eurokoa izan zen, eta 1.062.821,99 euro ordaintzeke daude.

*Gomendatzen dugu Udalak neurri egokiak har ditzan, bai desjabetutako lurzati jabeekin dituen zorrak ordaintzeko, bai lurzati horien xedea edo helburua zehazteko.*

## VI.2. BIGARREN ETA BEHIN BETIKO KOKALEKUA

2005ean, San Adriango arau subsidiarioetako beste hirigintza-aldaketa izapidetzea hasi zen<sup>(2)</sup>, besteak beste, “herritarrek eskari garrantzitsuenei erantzuteko xedez, eta horien artean daude haurtzaindegia handitzea eta kiroldegia egitea”. Egiturazko aldaketa hori AR-17 eremu homogeenan egin zen –geroago AR-2 izena eman zitzaion–, eta haren ondorioz lurzoru urbanizaezinak determinazio xehakatuak zituen sektorizatutako lurzoru urbanizagarri bihurtu ziren, bizitegitarako kalifikazioarekin. Hirigintzako planteamendu berri honetan bazen gune bat kirol ekipamendu publikoaren sistema orokorrerako –18.107 m<sup>2</sup>–, udalari doan lagatakoa. Bertan gauzatuko ziren kiroldegi berriko instalazioak eta, ondorioz, baliorik gabe utziko zen lehengo tokian, El Pontigonon, egiteko asmoa.

Dokumentazioan ez dago arrazoi nahikorik kirol instalazioen kokalekua aldatzea justifikatzeko. Hala ere, badirudi aldaketa justifikatzeko arrazoiak izan zirela kokaleku berriak, sarbideari dagokionez, abantailak dituela erabiltzaileentzat, eta haren urbanizazioak gastu txikiagoa ekarriko lukeela.

Unitate horren exekuziotik, udalak aprobetxamenduen legezko ehuneko 10a jasotzen du, eta horiek lurzati jakin batzuetan gauzatzen dira. Lurzati horien salmentarekin finantzaturako kirol instalazioak (ikus VI.8. atala). Era berean, udalak Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako ikastetxe bat eraikitzeke lursail batzuk lortu zituen.

## VI.3. PROIEKTUAREN KONTRATAZIOA

### VI.3.1. Udako igerilekuen hasierako kokalekuan.

- 2000ko abenduaren 28an, udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen “San Adriango kiroldegia egiteko proiektuaren idazketa, obren zuzendaritza, eta segurtasun eta osasun arloko azterketa eta koordinazioa” kontratatzeke laguntza teknikoaren espedientea. Espedientea onetsi zen esleipen irekiaren prozeduraren bidez, premiazko lehiaketa eginda, 90.632,62 euroko aurrekontuarekin (BEZa barne).

- Laguntza teknikorako kontratu hori arautzen duten baldintza-orriei buruz, ondoko gogoeta egin dugu:

(2) Behin betiko onetsia, abenduaren 20ko 600/2005 Foru Aginduaren bidez.

a. Ez dago txosten teknikorik justifikatzen duenik ez lizitazioaren prezioa ez lehiaketaren prozedura hautatu izana enkantearen aldean.

Prozedura honen barneko aholkularitza juridikoa ordezkari batek egin zuen.

c. Premiazkotasun deklarazioa oinarritzen da obrak 2001eko otsailaren 17a baino lehen esleitzeko beharrean, hala izanez gero aukera baitzegoen Nafarroako Gobernuak kirol instalazioetarako ematen zituen diru-laguntzak eskatzeko. Kontuan hartuta baldintza-orri horiek onetsi ziren uena eta ondorengo obren esleipena izapidetzeko aurreikusitezkeen epeak, materialki ezinezkoa zen epe hura betetzea.

d. Bigarren klausulan, lehen faseko esleipenari buruzko zenbatekoaz gainera, ondokoa ere ageri zen:

“Esleipen-hartzaileari emango zaizkio kirol instalazioen obra guztiak egiteko aurreikusitako diren hurrengo faseetako proiektuak, betiere obra horiek eta dagozkien proiektuak egiteko nahikoa diru baldin badago aurrekontuetan, eta lehenbiziko proiektuaren proposamen baxua mantentzen bada.”

Halaber, hau ere ezartzen da:

“Lan horiei dagozkien ordainsariak kalkulatzeko, ehuneko 20ko murrizketa aplikatuko zaie Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren eta esku hartzen duten gainerako elkargo ofizialen baremoek ezarritako batez besteko lansariei.

Klausula hori, ondoren aztertuko denez, kiroldegian aurreikusten diren instalazio berriei dagozkien hurrengo enkarguen oinarria izan da.

Gure iritziz, baldintza-orrietan eta kontratuan ez denez ezer ere ezartzen gai horri buruz, kontratuaren iraupenak gehienez ere lau urtekoa izan behar zuen; izan ere, ez dago espresuki jasota hura beste bi urtez luzatzeko aukera, Nafarroako Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeak araututako moduan.

e. Kontratazio Mahaiaren osaketan ageri dira, Gobernu Batzordeko kideez gain, udal arkitektoa eta udal idazkaria, Nafarroako Kirol Institutuko teknikari bat eta Arkitektoen Elkargo Ofizialak izendatutako arkitekto bat. Mahai horrek eginiko bileren aktetan ez da ageri ez deialdia ez bi kide horiek agertu izana; aldiz, ageri da enpresa pribatu bateko kide baten parte-hartzea, alkateak eskatuta, ahotsarekin baina botorik gabe, proposamen teknikoak aztertze fasean. Ez dago jasota Udalaren Osoko Bilkurak Mahaiaren osaketari buruzko aldaketa horiek onetsi izana. Bestalde, esan behar

dugu Mahaiaren aktetan ez dela udal idazkariaren sinadurarik ageri.

• 2001eko otsailaren 20an, Udalaren Osoko Bilkurak enpresa bati esleitu zion kontratua, 72.506,10 eurogatik —ehuneko 20 merkeago—, eta kontratua 2001eko martxoaren 5ean sinatu zen. Hona hemen kontratuan aurreikusitako ordainsariaren xehakapena (BEZa barne):

	Zenbatekoa
Proiektua idaztea, topografia lanak eta zundaketak	43.503,66
Segurtasunari eta osasunari buruzko azterketa	2.704,55
Obren zuzendaritza	21.751,83
Segurtasun eta osasun arloko koordinazioa obretan	4.546,06
<b>Guztira</b>	<b>72.506,10</b>

Aipatu kontratuaren arabera, proiektuaren idazketa aurreko ordainsariak 1. fasea deiturikoan aurreikusitako instalazio hauei zegokien:

- Erabilera anitzeko igerilekua
- Haur txikientzako igerilekua
- Udako igerilekuko aldagelen eraikina
- Eremuaren itxitura
- Igerilekuen guneko lorategia

– Kanpoaldeko urbanizazioa, beste profesional batek baloratutako oroitidazkian –2000ko abuztu-koa da– ezarritako baldintzen eta aurrekontuen arabera.

• 2001eko martxoaren 20an, proiektuaren idazketaren arduradunek oinarritzko proiektua aurkeztu zuten, kontratuaren 3. klausulan ageri den 15 eguneko epearen barruan. Oinarritzko proiektuan ondoko uda-instalazioak aurreikusten dira: kirolerako eta aisialdirako igerileku bat, haur txikientzako igerileku bat eta aldagelak. Hona hemen aurkeztutako aurrekontua:

	Zenbatekoa
Igerilekuak	802.612,87
Aldagelen eraikina	1.385.284,43
<b>Obren aurrekontua, guztira</b>	<b>2.187.897,30</b>

Aurreko zenbatekoan jasota dago kanpoko urbanizazioa egiteko kontusail bat, 41.439,94 eurokoa.

• 2002ko apirilean, esleipen-hartzaileek proiektuaren behin betiko idazketa aurkeztu zuten, haren

hasierako kokalekuari buruzkoa, eta udalak onetsi egin zuen. Beraz, proiektua administrazio klausula partikularren orrietako 3. klausulan ezarritakoa baino urtebete beranduago aurkeztu zen. Ez dago jasota atzerapen horren justifikaziorik, ez eta baldintza-orrietan lanak berandu aurkezteagatik aurreikusitako zehapenak aplikatu izanari buruzko agiririk ere.

Hona hemen proiektuan aurreikusitako instalazioak eta haien kostua:

Instalazioak	Zenbatekoa
Igerilekuak	957.601,15
Aldagelen eraikina	1.455.750,60
Kanpoko urbanizazioa	1.048.710,64
Segurtasunari buruzko azterketa	37.712,65
Frontoi estalia	203.952,13
Proiektua, guztira	3.703.727,17

Ikus daitekeenez, instalazio berri bat ageri da, frontoi estalia, azkenean eraiki ez zena.

- 2002ko apirilaren 29an, Osoko Bilkurak espresuki onetsi zuen udal kiroldegiaren lehen faseari buruzko proiektu teknikoa. Halaber, onetsi zen desjabetze-prozedurak ukitzen zituen ondatsun eta eskubideen zerrenda, kiroldegiaren lehen kokalekuari buruzkoa.

- Hori baino lehenago, 2002ko martxoan, esleipen-hartzaileak Euskal Herriko Arkitektoen Elkaragoak ikus-onetsitako faktura bat aurkeztu zuen, ondoko zenbateko eta kontzeptuak jasotzen zituen:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Proiektua	37.503,16
Segurtasunari eta osasunari buruzko azterketa	2.331,51
Urbanizazio proiektua handitzea	20.052,08
Ordainsariak, guztira	59.886,75
BEZa, % 16	9.581,88
Faktura, guztira	69.468,62

Faktura horri buruz –2002ko irailean ordaindu zen–, bi alderdi nabarmendu nahi ditugu:

a. Bertan sartu da –bai eta ordaindu ere– “Proiektua idaztea, topografia lanak eta zundaketak” izeneko kontzeptua, baina lan horiek ez dira espedientean ageri.

b. Kontratuaren arabera, “Urbanizazio proiektua handitzea” kontzeptuagatiko fakturazio osagarria

ez dago justifikatuta; izan ere, urbanizazio proiektua kontratuaren edukiaren zati zen, eta igerileku- en oinarriko proiektuari buruzko aurrekontuan jasotzen zen.

### VI.3.2. Behin betiko kokalekuko proiektua.

- Gure ustez, proiektua idazteko aurreko arduradunekin sinatutako kontratuak jada ez zuen indarririk 2005eko martxotik aurrera. Horrenbestez, data hori eta gero eginiko enkargu guztiak bidezkoa zen kontratazio espedientea izapidetu gabe gauzatu eta zuzenean esleitu dira, eskaintzarik eskatu gabe.

- 2006ko otsailean, aurreko esleipen-hartzaileak kiroldegia egiteko proiektu berria aurkeztu zuen. Une hartan, proiektuak “San Adriango Igerileku Estalia” izena hartu zuen, eta honako egitura zuen:

- Kirol igerileku bat.
- Igerian irakasteko igerileku bat.
- Hidromasajerako igerilekua.
- Instalazioen aretoa (instalazioak eta bainu-etxea).
- Aldagelen eraikina.

Hona hemen aurrekontu bakarra BEZa barne, igerilekuak eta aldagelen eraikina eta gainerako instalazioak bereizi gabe):

Kontzeptua	Zenbatekoa
Proiektua	3.990.602,29
Kanpoko obrak	353.454,47
Segurtasunari eta osasunari buruzko azterketa	24.278,80
Proiektua, guztira	4.368.335,56

- Udalaren Osoko Bilkurak, Hirigintzako Batzordeak proposatuta, igerileku estalia eta aldagelen eraikina egiteko proiektua onetsi zuen, 2006ko apirilaren 11n. Erabaki horrek dakar obrak kontratatzeke espedienteari hasiera ematea. Nabarmendu nahi dugu, ondoren izan den eragina dela eta, proiektua onetsi zela Kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legearen arabera ezinbestekoa zen azterketa geoteknikoa egin gabe.

Igerilekuari eta aldagelen eraikinari zegozkien obrak soilik lizitatu ziren; gainerakoak zuzenean esleitu ziren, aldeztatik eskaintzak eskatuta.

- 2006ko otsailaren 16an, proiektu berri horren idazketari buruzko faktura aurkeztu zuten, 88.794,98 eurokoa (BEZa barne). Zenbateko hori, esleipen-hartzaileak justifikatzen duenez, lehena-

go aurkeztu eta 2002an fakturatutako proiektuaren handitze eta/edo aldaketa den neurrian, lortzen da aldagelak egiteko proiektua –jada kobratuta zegoena– eguneratuta eta proiektuaren gainerako guztia proiektu berri bat balitz bezala fakturatuta, baldintza-orrietan kasu horietarako aurreikusitakoari jarraikiz.

- Ondoren, 2008an, obren zuzendaritzaren buruzko ordainsariak aurkeztu zituzten –106.566,20 euro, guztira–, eta udaleko kontu-hartzaileak horiei buruzko erreparoa aurkeztu zuen.

- Laburbilduz, esleipen-hartzaileak ondoko fakturazioa aurkeztu du, guztira:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Lehen proiektua idaztea	69.468,62
Bigarren proiektua idaztea	88.794,98
Idazketa, azpitotala	158.263,60
Obren zuzendaritza	106.566,20
Fakturatutakoa, guztira	264.829,80

Era berean, esan behar dugu 2006an eginiko ordainketak eta obren zuzendaritzari buruzko ondorengo ordainketak banaka egin zaizkiela arkitekto bazkideei, eta ez sozietate esleipen-hartzaileari.

- 2010eko ekainean, aipatu esleipen-hartzailearen idatzi bat dago jasota, zeinaren bidez udalari eskatzen baitio ordaintzeke dagoen 15.391,68 euroko zorra ordaintzeko.

#### VI.4. AZTERLAN GEOTEKNIKOA

- Lehenbiziko proiektuan, arestian aipatu dugun moduan, ez dago jasota, baldintza-orrietan hala eskatzen bazen ere, lehen kokalekuari buruzko azterlan geoteknikoa.

- Igerileku estalia eta aldagelen eraikina egiteko proiektua onetsi zen Osoko Bilkuraren erabakian ere ez da jasotzen hari dagokion azterlan geoteknikoa, kontratazioari buruzko araudiak eskatzen duena.

- 2007ko urtarrilaren 20an, udalaren sarrera erregistroan faktura bat dago jasota, azterlan geotekniko bat (zundaketak eta eraikuntzaren proiektu geoteknikoa) egiteari buruzkoa, 5.568 euroengatik. Azterketa horri buruzko txostenaren aurrekarietan azaltzen denez, azterlana egiteko enkargua proiektua idazteko esleipen-hartzaileak egin zuen, udalaren izenean, 2006ko irailaren 14an; hau da, obrak esleitu ziren egunaren –2006ko irailaren 1a– eta kontratua sinatu zen egunaren –2006ko irailaren 26a– artean.

- Gure iritzian, lan hori proiektuaren esleipen-hartzaileak aurkeztu behar zuen eta bere fakturazioaren zati izan behar zuen; izan ere, harekin 2001eko martxoan sinatutako kontratuaren edukian jasotzen zen ondoko azterlanak aurkezteko konpromisoa:

- Udal kiroldagiko instalazioak eginen diren eremuko jasotze topografikoa.

- Udal kiroldagiko instalazioak eginen diren eremuko zoruaren zundaketak eta analisiak.

- Azterlan geoteknikoa egiterakoan, arazo bat sortu zen instalazioen zimentazioan, eta, horren ondorioz, pilotajeen sistemaren bidez egin behar izan zen, sistema hori proiektuan aurreikusita ez bazegoen ere. Pilotajeen sistema erabiltzeak kostu gehigarri bat ekarri zion obrari, hasierako proiektuan aurreikusita ez zeuden obra-unitateak zirela-eta. Kostu gehigarri hori 659.086,29 euroan baloratu zen obrei buruzko ziurtagiritan. Halaber, obra egiteko epean era eragina izan zuen. Ez dago jasota obrari buruzko kontratuaren aldaketaren izapidetzea.

- Udaleko idazkari titularrak, 2007ko irailean, ohar bat eman zuen irregulartasun horien berri emanez.

- Gure iritzian, Udalak bidezkoak ziren erantzukizunak eskatu behar zizkion proiektu berria idaztearen esleipen-hartzaileari.

#### VI.5. IGERILEKUA ETA ERAIKIN SOZIALA ETA ALDAGELAK KOKALEKU BERRIAN EGITEKO OBREN KONTRATAZIOA

- 2006ko martxotik apirilera bitartean, alkatearen ebazpen baten bidez, agindu zen igerilekuaren eta eraikin sozialaren obrak kontratatzeko espedienteari hasiera emateko, Udalaren Osoko Bilkurak administrazio klausula partikularren pleguak onetsi zituen eta agindu zuen prozedura irekiari hasiera ematea, lehiaketa publikoaren bidez eta premiazko izapidetzearekin; izan ere, instalazio horiek finantzatzeko diru-laguntza bat eskatzeko asmoa zegoen, toki entitateei diru-laguntzak emateko 2006ko deialdiaren arabera, eta hura eskatzeko epea 2006ko apirilaren 28an amaitzen zen. Hala, berriro ere, diru-laguntzen deialdiaren datak prozeduraren premiazotasuna justifikatu zuen. Lizitazioaren prezioa 3,99 milioi euroan finkatu zen eta obrak egiteko epea, berriz, 12 hilabeteetan.

Espediente hori ezinbesteko gastu-baimena eman gabe onetsi zen. Kontu-hartzaileak behar adinako kreditua bazegoela ziurtatu zuen esleipena egin baino lehen, 2006ko abuztuaren 29an.

- 2006ko apirilaren 27an, Osoko Bilkurak obrei buruzko ondoko finantzaketa-plana onetsi zuen. Obren kostua 3,84 milioi eurokoa izanen zela kalkulatu zen, BEZa kenduta.

Finantzaketa iturriak	Zenbatekoak
Diruzaintzako gerakina 2005ean	76.547,40
Hirigintza-aprobetxamenduak	2.762.563,32
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	1.000.000,00
Finantzaketa, guztira	3.839.110,72

BEZa ez da kontuan hartu planean, instalazioek ez-zuzeneko kudeaketa izanen dutelako; ondorioz, obrek jasandako BEZa kengarria da udalarentzat.

- 2006ko irailaren 1ean, Osoko Bilkurak erabaki zuen kontratua enpresen aldi baterako batasun bati esleitzea, 3,64 milioi euroren truke (gastu guztiak eta BEZa barne); hau da, ehuneko 8,69 merkeago. Obrak egiteko epea bederatzi hilabetean ezarri zen, lehiaketan ezarritakoa baino hiru hilabete gutxiago. Kontratua 2006ko irailaren 26an sinatu zen, eta zuinketa akta, berriz, 2006ko irailaren 28an.

- Kirolddegiko obrak esleitzeko prozedura, oro har, legezko aurreikuspenen arabera gauzatu da.

- Obrei buruzko lehen ziurtagiria 2006ko azaroaren 24koa da, eta azkena –19.a– 2008ko abenduaren 29koa. Hona hemen ziurtagirien zenbatekoak, guztira:

Ziurtagiriak, guztira	Zenbatekoa
Ziurtagirien batuketa, BEZa kenduta	4.605.188,85
Jasandako BEZa	736.832,54
Ziurtagirien batuketa, guztira	5.342.021,39

17. eta 19. ziurtagiriekin batera udaleko kontu-hartzaitzak aurkeztutako erreparoa jasotzen dira. Aipatutako lehen ziurtagiriari dagokion erreparoa ez-geldiarazlea da, kontu-hartzailearen iritziz; izan ere, ziurtaturiko zenbateko metatua esleitutako zenbatekoa baino handiagoa da, eta kontratua ez da aldatu.

Azken ziurtagiriari –19.a– buruzko erreparoa geldiarazlea da kontu-hartzailearen iritziz, ez baitago dirurik ziurtagiri horretan jasotako zenbatekoari aurre egiteko eta obra osoaren kostua nabarmen aldentzen baita esleitutako zenbatekotik; hala ere, Osoko Bilkurak ziurtagiri hura baliozkotu zuen, bai eta onetsi eta ordaintzeko baimena eman ere.

- Ondoko koadroan agertzen da onetsitako proiektu eta aurrekontuaren eta aurkeztutako ziurtagirien arteko alderaketa:



Kontzeptuak	Aurrekontua	Ziurtatua	Aldea	Desbider.
Lur-mugimenduak	77.848,43	207.260,74	129.412,31	% 166
Eraikinen eta igerilekuen zimendatzea	346.764,37	1.029.630,48	682.866,11	% 197
Saneamendu horizontala	49.897,03	60.301,29	10.404,26	% 21
Hormigoizko egitura	322.507,07	318.669,07	-3.838,00	% -1
Hormigoizko prefabrikatuak	9.701,28		-9.701,28	% -100
Estaladura teleskopikoa	383.947,00	376.091,57	-7.855,43	% -2
Estaladura	116.815,44	118.117,26	1.301,82	% 1
Igeltserotza	242.942,20	273.950,50	31.008,30	% 13
Eskaiola eta sabai aizunak	22.736,50	42.763,19	20.026,69	% 88
Isolamenduak eta iragazgaizteak	34.688,57	69.497,23	34.808,66	% 100
Zoladura eta estaldurak	277.903,79	340.136,85	62.233,06	% 22
Zurgintza	26.592,82	46.839,62	20.246,80	% 76
Arotzeria metalikoa	61.881,44	76.754,70	14.873,26	% 24
Sarrailagintza-lanak	77.915,64	85.921,61	8.005,97	% 10
Beira	51.542,16	53.122,67	1.580,51	% 3
Pintura	4.736,56	57.790,99	53.054,43	% 1120
Instalazio elektrikoa	77.670,41	77.670,41	0,00	% 0
Argiteria instalatzea	81.391,38	85.974,92	4.583,54	% 6
Iturgintza	22.021,41	22.021,41	0,00	% 0
Arazketa eta bultzada instalazioak	117.823,55	123.016,18	5.192,63	% 4
Klimatizazio- eta aireztatze-instalazioak	282.785,59	331.151,69	48.366,10	% 17
Eguzki instalazio termikoa	108.672,42		-108.672,42	% -100
Gas instalazioa	19.100,00	19.100,00	0,00	% 0
Megafonia	11.217,72	11.217,72	0,00	% 0
Igerilekuetako ekipamendua	11.581,22	11.990,02	408,80	% 4
Zentroko ekipamendua	53.548,23	54.019,58	471,35	% 1
Aldageletako ekipamendua	55.547,50	55.547,50	0,00	% 0
Suteetarako babesak	17.649,76	29.678,50	12.028,74	% 68
Kalitatearen kontrola	5.826,50	6.414,50	588,00	% 10
Segurtasuna eta osasuna	18.200,00	18.200,00	0,00	% 0
Exekuzio materiala, guztira	2.991.455,99	4.002.850,20	1.011.394,21	% 34
Kontzeptu berriak		382.774,36	382.774,36	
Exekuzio materiala, guztira	2.991.455,99	4.385.624,56	1.394.168,57	% 46

Kontzeptu berrien barruan ondokoak sartzen dira:

Kontzeptu berriak	Zenbatekoa
Eraikina lursailen integratzea	36.109,06
Obra gehigarriak	120.810,96
Transformazio elektrikorako zentroa	124.813,60
Prezioen berrikuspena	101.040,74
Kontzeptu berriak, guztira	382.774,36

Prezio berrikuspenari dagokionez, baldintza-orrien laugarren klausulak berrikuspenerako formula zehatza ezartzen du. Prezioen berrikuspena 16. ziurtagiritik 19. eta azken ziurtagirira bitartekoei aplikatu zitzairen. Kasuko ziurtagirietan zenbatespena ageri da, baina zenbateko hori ez da dokumentuen bidez eta teknikoki justifikatzen, esleipen-hartzailearen eta udalaren arteko akordio bat aipatzen bada ere. Ezin izan da egiaztatu kontzeptu horren zenbatespena, Ganbera honek informazio dokumentala espresuki eskatu duen arren.

• Laburbilduz, gastu guztiak eta BEZa kontuan hartuta, obraren ziurtapenak, guztira, ondoko koadroan ageri dira:

	Zenbatekoa
Obraren exekuzio materiala	4.385.624,56
Gastu orokorrak eta mozkin industrialak (% 15)	657.843,68
Zenbateko materiala	5.043.468,24
Jaitsiera % 8,69	(438.277,39)
Exekuzioa, guztira, jaitsieraren ondoren	4.605.190,85
BEZa, % 16	736.830,54
Amaierako ziurtapena, guztira	5.342.021,39

Ondoko koadroan ageri da obraren amaierako kostuaren eta proiektuan eta esleipenean aurreikusitakoaren arteko alderaketa:

Obrak	Zenbatekoa	Proiektuaren gaineko aldea, ehunekotan	Esleipenaren gaineko aldea, ehunekotan
Proiektuaren zenbatekoa	3.990.602,29	100	109
Esleipenaren zenbatekoa	3.643.818,95	91	100
Azken ziurtapenaren zenbatekoa	5.342.021,39	134	146

Finean, obrak ehuneko 9ko jaitsierarekin esleitu ziren, baina azken zenbatekoa ehuneko 46 handiagoa izan zen.

Zehaztu beharrezkoa da ezen, 2007ko amaiera aldera, eginiko obraren prezioak esleitutako zenbatekoarena ehuneko 20 gaintzen zuela jada, hori izanik Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko 10/1998 Foru Legeak ezarritako gehieneko muga hasierako kontratua aldatzeko. Gure iritziz, une horretan beharrezkoa zen kontratua esleitzeko beste prozedura bat egitea.

Hona hemen esleitutako zenbatekoaren gaineko desbideratzeak:

Desbideratzeak	%
Proiektuaren aldaketak (neurketen areagotzea eta/edo obra unitate berriak)	34
Proiektuan aurreikusten ez ziren kapitulu berriak	9
Prezioak berrikustea	3
Guztira	% 46

Bestalde, azken ziurtagiriarekin –19.a– batera doan txostenean obraren zuzendaritza aipatzen duenez, “zehazki, likidazioak igerileku estalian eta aldagelen obrei dagozkien kapitulu guztiak jasotzen ditu, San Adriango Udalak eta enpresen aldi baterako batasunak 2008ko urtarrilaren 11n hitzartutako “prezio itxiaren” proposamenari jarraikiz...” Ez dugu aipatu prezio itxiaren xehetasunen berri, Ganbera honek azalpenak eskatu baditu ere. Hala ere, Ganbera honek eskatu txostenaren arabera, obraren zuzendaritzak honakoa dio: “2008ko urtarrilaren 15ean, Udaleko ordezkariak, esleipen-hartzaileak eta obraren zuzendaritzak bilera bat egin zuten San Adriánen, eta bertan esleipen-hartzaileak onetsi egin zuen San Adriango Udalak eginiko proposamena; alegia, obrak 4.140.000 euroko prezio itxiaren trukean amaitzeari buruzkoa, beste aldaketa, prezio berri, berrikuspen eta neurketarik egin gabe. Hala, lanak 2008ko apirilean amaitu ziren.”

Ez dago jasota kontratuaren gainean egindako aldaketan izapidetzerik edo esleipen-hartzaileak

gordailuan utzitako abalaren doikuntzarik. Horrez gain:

- Obrak egiteko epea. Azken ziurtagiria 2008ko abenduaren 29koa da, eta obren onarpen-akta 2009ko urtarrilaren 27an sinatu zen, inolako gora-beherarik jaso gabe.

Hala ere, azken ziurtagiri horrekin batera zihonan txostenean, obren zuzendariak bi zehaztapen edo iruzkin egin zituen:

a. 2008ko ekainaren 17an igerilekuen eta aldagelen harrera partziala egin zela, eta horiek 2008ko uztailaren 5ean inauguratu zirela. Horri dagokionez, foru erkidegoko kontratazioari buruzko araudiak ondokoa dio: "Harrera partziala egin ahalko da erabilera publikorako ematen ahal diren faseetan egin daitezkeen obra zatietan, kontratuan ezarritakoaren arabera". Ez administrazio klausula partikularren orrian ez kontratuan ez dago inolako aurreikuspenik halako harrera partzial bat egiteko.

b. Obrak egiazki 2008ko urriaren 1ean amaitu zirela, arazketarako instalazioetako berrikusketak edo doikuntzak falta baitziren.

Aztertzen baditugu kontratuan aurreikusitako epea eta harrera-aktaren data, ondoko desbiderapena dagoela ikus dezakegu:

Epeen zenbaketaren hasiera	2006ko irailaren 28a
Kontratuaren arabera amaiera data teorikoa	2007ko ekainaren 28a
Harrera-aktaren data	2009ko urtarrilaren 27a
Denbora aldetiko desbideratzea	19 hilabete

Alderaketa egiten bada obren zuzendariak obrak egiazki amaitu ziren egun gisa emandakoarekin, desbideratzea ondokoa da:

Epeen zenbaketaren hasiera	2006ko irailaren 28a
Kontratuaren arabera amaiera data teorikoa	2007ko ekainaren 28a
Egiazko amaiera data, harrera-aktan jasotakoaren arabera	2008ko urriaren 1a
Denbora aldetiko desbideratzea	15 hilabete

Ez dago jasota inolako txostenik denbora aldetiko desbideratze hori justifikatu, hari buruzko

Pistak	Ekitaldia	Zenbatekoa
Padel pistak eraikitzea	2008	67.882,25
Tenis pistak eraikitzea	2008	43.980,09
Proiektua eta obra-zuzendaritza	2008	10.099,04
Pistak, guztira		121.961,38

erantzukizunik zehatu eta, kasua bada, baldintzarrian berandutzeagatik ezarritako zehapenak ezartzen dituenik. Hala ere, ondoriozta daiteke pilotajearen gaiak gertaturiko desbideratzearen zati bat baldintzatu duela neurri batean; kontratuaren betetzearen gainerako berandutzeaz, obren zuzendaritzak emandako txostenak ondokoa dio: "Atzerapena faktore hauen ondorio izan da:

- Neurri batean, udalak hasierako proiektuan eta aldatutako dokumentuetan behin eta berriro eginiko aldaketak, zeinek, agerikoa denez, obren antolamenduari eta materialen horniketari buruzko arazoak sor baititzakete.

- Neurri batean, esleipen-hartzaileak obrak antolatzerakoan izandako arazoengatik.

- Neurri batean, lurzattia urbanizatzeko obren atzerapena dela-eta sorturiko arazoengatik, horien ondorioz neurri ezohikoak hartu behar izan baitira eta lanak atzeratu behar izan baitira; izan ere, lurzattia ez zeuden eskuragarri beharrezkoak ziren zerbitzuak (bereziki, energia elektrikoaren, gasaren eta uraren horniketari dagokionez)."

#### VI.6. KIROLDEGIAREN ERAIKUNTZARI BURUZKO BESTE GASTU BATZUK

Atal honetan aztertuko ditugu arestian aipatu obren kontratutik kanpo kudeatzen diren kiroldegiaren eraikuntzari buruzko gastuak.

Hala, ondoko gastuak egozten zaizkio kiroldegiari (zenbatekoak BEZa barne):

Bestelako gastuak	Zenbatekoa
Tenis eta padel pistak	121.961,38
Kanpoko urbanizazioa	258.118,93
Harmailak	18.949,75
Askotarikoak (iragarkiak, erregistroak, eta abar)	35.169,89
Bestelako gastuak, guztira	434.199,95

- Tenis eta padel pistei dagozkien gastuak bat datoz kirol instalazioak kontzeptu horiengatik handitzeko gastuekin; horretarako, udalak Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza bat jaso zuen, 52.554,5 eurokoa, padel pista finantzatzeko. Hona hemen gastu horien xehakapena (BEZa barne):

- Pisten kasuan, haien izaerari obra-kontratuak dagozkio, eta, haien zenbatekoa dela-eta, prozedura negoziatuaren bidez izapidetu beharko lirateke, Europar Batasunean publizitatea izan gabe. Ez da administrazio-espediterik izapidetu, eta idazkariak eta kontu-hartzaileak ez dute prozeduran

parte hartu. Hala ere, hiru eskaintza eskatu dira bederen, barne izaerarekin, lehia printzipioa errespetatze aldera, eta gehienetan eskaintza merkeenaren irizpidea hartu da kontuan.

- Hona hemen kanpoko urbanizazioari dagozki- on gastuen xehakapena (BEZa barne):

Kontzeptua	Ekitaldia	Zenbatekoa
Lorategia eta ureztatze automatikoa	2008	146.731,71
Kanpoko hesiak	2008	77.522,93
Udal-igerilekuetako hesiak	2008	9.107,51
Sareta	2008	3.369,08
Bizikleten guneko hormigoia	2008	837,98
Banbu txinatarra	2008	553,05
Obraren proiektua eta zuzendaritza	2008	19.996,67
Kanpoko urbanizaziora, guztira		258.118,93

Kanpoko urbanizazioari dagokionez, esan behar da, lehenbizi, kiroldegiaren proiektua idatzi zuen lan-taldeak aurkeztu zuen exekuzio proiektua –1. separata– osatzen duten agirietako bat zela “Kanpoko obrak” izenekoa, urbanizazio, itxitura, lorategi eta ureztatze sareari buruzkoa eta 353.454,47 euro egiten zituena. Jasota dago, baita ere, kontzeptu horiei buruzko aurrekontu bat, 384.266,18 eurokoa eta 2008ko apirilaren 8ko data duena, zein aurkeztu baitzuen kiroldegia erakitzeke ardua zuen enpresen aldi baterako batasuna osatzen zuten enpresetako batek.

“Lorategia eta ureztatze automatikoa” izeneko kontzeptuari dagokionez, kasuko espeditentea ez da izapidetu Europar Batasunean publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, eskaintzak eskatu izana jasota badago ere. Kanpoko hesien kasuan, ez dago jasota eskaintzak eskatu izana.

- Harmailen eraikuntza dela-eta, faktura bat ageri da, 18.949,74 eurokoa. Zenbait eskaintza eskatu ziren, eta proposamen merkeena aukeratu zen.

- Laburbilduz, “Eraikuntzari buruzko beste gastu batzuk” izeneko kontzeptuaren barruan ez da izapidetu ezinbestekoa zen kontratazio-espeditentea honako zenbatekoei dagokienez:

Bestelako gastuak, guztira	434.199,95
Espediterik gabeko enkarguak, guztira	355.066,72
Espediterik gabeko jarduketak, guztira	% 82

Kontratazio-espediterik gabe izapidetu diren gastu horiei buruzko faktura guztien gaineko ohar-tarazpenak egin ditu udaleko kontu-hartzaileak.

- Bestalde, nolabaiteko koordinazio falta antzematen da obren zuzendaritzaren eta kanpoko urbanizazioaren zuzendaritzaren artean kiroldegia azpiegitura orokorrekin lotzeko unean, udal idazkariak gai horri buruzko ohar-tarazpenak egin bazituen ere.

#### VI.7. KIROLDEGIAREN EKIPAMENDUA

Kiroldegiaren ekipamenduaren kostuak, guztira, 308.431,67 euro egin ditu (BEZa barne), eta kontzeptu horretan sartzan dira gimnasioa, sarbide-kontrola, altzariak, komunitateko osagarriak, segurtasun kamerak, eta abar.

Horien kudeaketa egiteko, material desberdinek erosi zaizkie hornitzaile desberdinei.

Erosketa horien zati handi bat egin da kontratazio publikoari buruzko foru araudian ezarritako kontratazio-prozedura jarraitu gabe, eta udaleko idazkariari eta kontu-hartzaileari ez zaie partaide-tzarik eman prozesu horretan. Hala ere, bidezkoa da aipatzea, eskaintzak bederen eskatu zaizkiela hornitzaile desberdinei, oro har.

Ekipamenduaren kostu osoaren eta kontratazio-espediterik formalizatu gabe izapidetu den zatiaren arteko erlazioa ondokoa da:

Ekipamenduaren kostua, guztira	308.431,67
Kontratazio-espediterik formalizatu gabe izapidetutakoa, guztira	217.981,63
Izapidetu gabeko portzentajea	% 71

Kontratazio-espediterik gabe izapidetu diren ekipamendu-faktura guztien gaineko ohartarazpenak egin ditu udaleko kontu-hartzailetzak.

#### VI.8. KIROLDEGIAREN ERAIKUNTZAREN FINANTZAKETA

VI.5. atalean aipatuenez, Osoko Bilkurak finantzaketa plan bat onetsi zuen espresuki obretarako. Plan hori berezko baliabideetan eta dirulaguntzetan oinarritzen zen. Planaren eta hark obren kostu osoarekin –BEZa kenduta– duen erlazioaren jarraipenetik ondorioztatzen da obren kostuak ehuneko 30 egiten duela gora, aurreikusitako finantzaketa ehuneko 30 murrizten den bitartean. Horrenbestez, soilik obrak direla-eta 2,3 milioiko finantzaketa-defizita sortu da.

Kiroldegia eraikitzeko gastuak bere osotasunean aztertuta (BEZa kenduta), ondoko koadroan ageri dira gastu horien finantzaketa-iturriak:

	Kontzeptua	Zenbatekoa (BEZa kenduta)
Kostuak	Proiektua idaztea, guztira	136.434,14
	Obren zuzendaritza, guztira	91.867,42
	Obren ziurtagiriak, guztira	4.605.190,85
	Beste batzuk, guztira	36.216,60
	Tenis eta padel pistak, guztira	105.139,12
	Kanpoko urbanizazioa, guztira	222.516,32
	Harmailak, guztira	16.335,99
	Ekipamendua, guztira	265.889,37
	Kiroldegia, guztira	5.479.589,81
	Desjabetzeengatikoko kalte-ordainak (1. kokalekua)	1.209.309,04
Kostua, guztira	6.688.898,85	
Finantzaketa-iturriak	Lurzati salmenta	1.746.654,40
	Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza igerilekuetarako	880.000,00
	Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza padel pistetarako	52.554,54
	Diru-sarrera atxikiak, guztira	2.679.208,94
Finantza-egoera	Finantzaketa-defizita	4.009.689,91
Zorpetzearen bidez eta bestelako aurrekontu-baliabideen bidez finantzaturiko zenbatekoak		2.946.867,92
Finantzatu gabe dauden zenbatekoak		1.062.821,99

Laburbilduz, San Adriango kiroldegiak 6,7 milioi euroko kostua izan du, BEZa kenduta.

Kostu hori 2,7 milioiko baliabide atxikien bidez finantzatu da, eta 4 milioiko finantzaketa-beharrizana sortu du.

Beharrizan horiek osatze aldera, udalak 2,2 milioi inguruko mailegua<sup>(3)</sup> hartu du, eta gainerako aurrekontu-baliabideen bidez finantzatu da. Finantzatu gabe dago lehen kokalekuari dagozkion desjabetzei buruzko ordainketa.

Udalari zegozkion hirigintzako aprobetxamenduen ehuneko 10a gauzatu zeneko hiru lurzati enkante publiko bidezko salmenta<sup>(4)</sup> honako egueran dago:

- Lurzatietakoa bat enkanteko lizitazio-prezioan saldu zen, 1,7 milioiren truke.
- Lurzatietakoa beste baten hasierako prezioa 0,5 milioikoa izan zen, baina enkantea hutsik geratu zen, lizitatzailerik ez baitzen agertu.
- Beste lurzattia 0,7 milioi euroan baloratu zen eta haren gainean hitzarmen bat sinatu zen planeamendua aldatzeko. 2005eko urrian, Osoko Bilkurak hasiera batean onetsi zuen aldaketa, eta gaur egun prozedura geldirik dago.

#### VI.9. KIROLDEGIAREN KUDEAKETA

Udalak bi txosten ditu kiroldegiaren bideragarritasun ekonomikoari buruz:

	2008ko abendua	2009ko iraila	2010eko abuztua
Bazkide kopurua	1.604	1.447	1.218
San Adriango abonatuaren ehunekoa	% 91	% 88	% 84
San Adriangoak ez diren abonatuaren ehunekoa	% 9	% 12	% 16

Ikus daitekeenez, ekitaldi batean ere ez da lortu kudeaketa planean aurreikusitako gutxieneko abonatu kopurua –2.000–; gainera, herrikoak diren abonatuaren kopurua ere etengabe ari da murrizten.

Egoera hori finantzaketa zailtasun garrantzitsuek eragiten ari zaizkio instalazioen errentariari, halako moduz non enpresa hori adierazten ari baita kontratua desegiteko eskatuko duela.

a. Txostenetako bat obrak lizitatzean egin zen, 2006an, eta Nafarroako Gobernuari kirol instalazioei buruzko diru-laguntza eskatzeko igorri beharreko dokumentazioaren oinarri gisa erabili zen.

b. Bigarrena 2007an egin zen, eta bertan, merkatuko ikerketak egiten dituen enpresa batek egini-ko eskaeraren azterketa batetik abiatuta, instalazioen kudeaketarako plan bat prestatu zen, egoera desberdinei zegozkien aurreikuspen ekonomikoak –ezkorra, normala eta baikorra– eta ustiapen-emaitzei buruzko hipotesiak jasotzen zituena. Edonola ere, kalkuluen abiapuntua da gutxienez 2.000 bazkide lortu behar direla instalazioen kudeaketa ekonomikoa bermatu ahal izateko.

Aipatu instalazioak zerbitzu-kontzesioa aplikatuta kudeatzen dira, errentamendu bidez. Kontratu 2008ko ekainean esleitu zen, eta ezarri zen errentariak urteko kanon finko bat ordainduko zuela –3.000 euro gehi BEZa–; era berean, aurreikusitako ezenez, kudeaketaren emaitzak positiboak izanez gero, irabazia proportzionalki banatuko zela udalaren eta errentariaren artean, zenbatekoaren arabera ezarritako ehunekoak aplikatuta.

Txosten hau idatzi den egunean, kudeaketaren emaitzak defizitarioak izaten ari dira, funtsean, aurreikusitakoak baino bazkide gutxiago lortu direlako; hala, eskuratu dugun informazioaren arabera, ondoko koadroan azaltzen da instalazio hauekiko bazkide kopuruaren bilakaera eta haien jatorri geografikoa:

2010ean, kontu-hartzaileak erreparatu txosten ez-etentzailea eman zuen, eta bertan azaldu zuen ez zegoela ados udalaren eta enpresa esleipen-hartzailearen arteko kontratua ez betetzearekin. Hala, alkateak eta enpresa esleipen-hartzaileak izandako bileretan adosturiko zenbait gai aipatzen ditu:

- Udalak ez dio fakturatu esleipen-hartzaileari kontsumitutako uraren gastua.

(3) 2007an, Udalak 3,4 milioiko mailegua hitzartu zuen aurrekontuan aurreikusitako inbertsioak finantzatzeko; mailegu horretatik, kontu-hartzailearen kalkuluen arabera, 2.060.061,58 euro aplikatu ziren kiroldegiko obretarako.

(4) Enkante horien hasierako prezioa adituaren balorazio-txostenetan oinarritzen da.

- Udal brigada da berdegunearen zaintzaz arduratzen dena.

- Esleipen-hartzaileak ez dio ordaindu udalari 2009. urteari zegokion kanon finkoa.

- Errentariak ez du arrisku anitzeko aseguru polizarik kontratatu instalazioen eta ekipamenduen gainean. Udala bere instalazioen gainean aseguru berri bat kontratatzeari buruz egiten ari den azterketetan kiroldergia ere kontuan hartu da.

2010eko azaroaren 30ean, alkateak ebazpen bat eman zuen, zeinaren bidez errentariari eskatu baitzitzaion kontratutik eratorritako aurreko betebeharrak bete zitzaion, eta, era berean, agindu baitzen kontabilitatean kontuan har zitezkeen San Adriango Udalaren aldeko eskubideak, bidezkoa izanez gero.

Txosten honen arduradun den auditore Ignacio Cabeza del Salvador jaunak proposatuta egin da lan hau, araudi indardunak ezarritako tramiteak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko abenduaren 27an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

### **SAN ADRIANGO UDALEKO ALKATEAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK**

2010eko abenduaren 10ean, alkate honek jaso du San Adriango Udaleko kiroldegiari buruz egindako behin-behineko fiskalizazio txostenaren kopia bat. Txosten hori Nafarroako Comptos Ganberako lehendakariak 2010eko abenduaren 9an emandako ebazpenaren bidez onetsi zen.

Behin-behineko txostena onesteko ebazpenak zazpi egun naturaleko epea ematen du, txostena jasotzen denetik hasita, alegazioak aurkezteko, betiere txostenean ageri diren ondorio eta iritzien gaineko erreferentzia argia eta zuzena egiten badute.

Hori dela-eta, honen bidez aurkezten ditut, garaiz eta forman, aipatu behin-behineko txostenari dagozkion alegazioak:

Lehena.- Lehenbiziko helburuari buruzkoa. San Adriango Udalaren kiroldegi berria kontratatzeo eta eraikitzeo prozedurari aplikatzeko zaion legeriaren betetze-maila egiaztatzea.

1. Oro har, ondoriozta dezakegu behin eta berriro urratu dela San Adriango kiroldergia osatzen duten elementu desberdinei aplikatzeko zaion kontratazioari buruzko araudia.

a. Proiektua idazteko eta zuzendaritza fakultatiborako laguntza-kontratuaren esleipena –2000ko abendutik 2002ko apirilera–.

Alkate honek ez zuen parte hartu proiektua idazteko eta zuzendaritza fakultatiborako laguntza-kontratuaren esleipen-prozeduran, 2007ko ekainaren 16an hartu baitzuen karguaren jabetza.

Kiroldegiaren eraikuntzaren inguruan sortu diren arazo gehienak lehenbiziko kontratazio horren ondorioz sortu dira; izan ere, aipatu laguntza-kontratazioaren ondorioz udalari emandako aholkularitza tekniko oso urria izan zen –alegazio hauen xede den behin-behineko txostenean bertan aipatzen denez–. Hona hemen proiektuaren idazketaren eta zuzendaritza fakultatiboaren arduraz zuzen lan-talde teknikoak emandako laguntza tekniko okerraren adibide batzuk:

1. Igerileku estaliak eta aldagelak eraikitzeo obren proiektuari dagokionez, zeina aurkeztu baitzen onetsia izateko eta bertan aurreikusten ziren obrak kontratatzeo:

- baldintza asko ezarri zitzaizkion, ezinbestekoak ziren osasun arloko (igerileku kolektiboak) eta suteei buruzko aldeko txostenak eman ahal izateko.

- Ez zuen jasotzen azterketa geoteknikoa, zeina obren proiektuen eduki gisa aipatzen baita Nafarroako Administrazioen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen 51.1 1) artikuluan. Lege hori aplikatzeko zaio bertan jasotako obren kontratazio-prozedurari, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen lehen xedapen iragankorrean ezarritako-ari jarraikiz.

- Azterketa geoteknikoaren falta gainditzeko, lan-talde teknikoak azterketa bat egiteko enkargua egin zion ENTECSARI, udal honen kontura, hori desegokia izanda ere.

Proiektuaren ondorioz neurritz kanpoko pilotajea egin behar izan zen, eta horrek gastu handia ekarri zion udalari, eta obren kontratuaren kostua areagotu zuen, Arquinavarrak idatzitako proiektuan agertzen ez ziren unitate berriak gehitu behar izan baitziren.

2. Obra unitate berrien exekuzioa beste kontratazio baten bidez egin beharrekoa zen, aplikatzeko zaion araudiari jarraikiz, eta, hasteko, obren zuzendaritzak txosten tekniko bat igorri beharko ziokeen kontratazio organoari, hots, Osoko Bilkurari. Baina inoiz ez zen halakorik gertatu, eta, alkate honek karguaren jabetza hartu eta urtebete ingurura, kontu-hartzaileak gehiegizko obrenga-

tik aurkeztutako eragozpen oharra, jada exekutatu-ko unitate berriei buruzkoa.

Alkate honek karguaren jabetza hartzerakoan, ez zegoen kontu-hartzailerik San Adriango Udalean; hori dela eta, hura hautatzeko deialdia izapide-tu behar izan zen, eta hautatutako izangaiak lanpostuaren jabetza hartu zuen 2008ko maiatzaren 12an.

Era berean, alkate karguaren jabetza hartu nuenean, exekutaturiko unitate berriek % 20 gainditzen zuten baimendutakoa, eta ez ziren modu independentean kontratatu.

3. Obren zuzendaritzaren laguntza teknikoa ez zen egokia izan prezio itxiaren hitzarmenari dagokionez: b. Kiroldegiaren eraikitze-lanak. Horri dagokionez, ondoko ohartarazpenak egin behar dira:

a) Obren zuzendariak aipatzen duen prezio itxiaren proposamena bere aholkularitzaren ondorioz egin zen, esleipen-hartzaileak obren kontratuaren esleipen-prezinoa igotzeko egin zuen presioak zirela medio, eta, hain zuzen ere, alegazio hauekin batera aurkeztu den alderaketa-taula obren zuzendaritzak egin zuen.

b) Igerileku zaharrek zituzten gabeziak konponezinak zirenez, ezinbestekoa zen igerileku berriak prest izatea udako denboraldia hasterako –izan ere, Nafarroako Gobernuaren Osasun Publikoko Institutuak ez zuen baimenik emanen igerileku zaharrak irekitzeko–; hori dela eta, gobernu-talde berriak konfiantza eman zion obren zuzendaritzari, eta horrek berak zuzendu zuen ustez prezio itxia hitzartu zen bilera.

Izan ere, bilera horri buruz eskura daitezkeen dokumentu bakarrak 2008ko urtarrilaren 15ekoak dira, eta obren zuzendaritzak prestatu eta aurkeztu zituen. Ondokoak dira:

– Aurrekontuaren laburpena, 2007ko abenduaren 20koa, zeinaren azken zatian agertzen baitira "QMARCIPLAN S.L.", jabetza gisa, eta "CONSTR. MACHO y RODRÍGUEZ, S.L.", esleipen-hartzaile gisa, eta horietako batek ere ez du zerikusirik San Adriango Udalarekin.

– Lau orrialdeko idatzia, ondoko izenburua duena: "Comparativa de contradictorios del proy. Modificado"

– "Reunión Ayuntamiento de San Adrian" izenburua duen idatzia.

Idatzi horietan jasotzen dira araudiaren eraginez areagotzen diren prezioak. Araudi hori betezea aurreikusita egon behar zuen, eta, hala, Arquinavarrak idatzitako proiektuan jasota egon

behar zuen, eta ez zen aintzat hartu behar obrak esleitutakoan; hori dela eta, proiektua idatzi duena da, hein handi batean, areagotze horien erantzulea.

c) Proiektua osatua egon izan balitz hasieratik, ez zen hainbesteko atzerapenik izanen ez obren exekuzioan, ez eta Arquinavarrarekin proiektua idazteko eta obren zuzendaritzarako sinaturiko kontratuan ere –haren iraupena 1998ko Kontratuei buruzko Foru Legean aurreikusitako lau urteetatik gorakoa izan zen–. Atzerapenik gabe, prezioen berrikuspina ez zen beharrezkoa izanen –kontratuan aurreikusitako formularekin, hori baita obren zuzendaritzak aplikatu behar zuena, prezio itxia aholkatu beharrean–, eta prezio osoa ez zen hainbeste igoko.

d) Arquinavarrako lan-taldeak ez dio atzerapenen justifikazioari eta prezioen igoerari buruzko inolako txosten teknikorik eman kontratazio-organari –Udalaren Osoko Bilkura– obrak egiten ari ziren bitartean.

Bigarrena.- Bigarren helburuari buruzkoa. Arestian aipatu instalazio guztiek udalari ekarri dioten kostuaren arrazoizkotasuna egiaztatzea. Gomen datzen dugu bidezkoak diren neurriak har daitezela ordaintzeke dagoen desjabetzeen zorra ordaintzeko, eta interesdunekin batera bila daitezela bi aldeentzat egokiak diren ordainketa formulak.

Osoko Bilkurak, 2010eko abenduaren 1ean, erabaki zuen hasiera batean onestea Udal honetako 2011rako aurrekontu orokorra, eta gastuen aurrekontuko kontusail batean –"Lursailak (desjabetzeak)" izeneko 432060008 kontusaila– 400.000 euro sartu dira hasiera batean igerilekuen kokaleku gisa aurreikusi ziren lursailen desjabetzeetatik eratorritako zorrari aurre egiteko.

Aurreikusi denez, urtero ahal den kopurua jarriko da aurrekontu orokorrean, zor hori ahal den denbora laburrenean kitatze aldera.

San Adrianen, 2010eko abenduaren 16an

Carlos Monasterio Muro

#### **AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA**

San Adriango Udaleko alkateak behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak jaso eta aztertuta, txostenean erantsi ditugu, uste baitugu ez diotela haren edukiari eragiten, eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Iruñean, 2010eko abenduaren 27an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas



## Oinarrizko errentaren kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena (2009-2010), Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2011ko urtarrilaren 31n eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak oinarrizko errentaren kudeaketari buruz eginiko fiskalizazio-txostena, 2009 eta 2010ekoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### Oinarrizko errentaren kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena (2009-2010), Comptos Ganberak egina

#### AURKIBIDEA

- I. Sarrera (25. or.).
- II. Oinarrizko errenta eta horren kudeaketa (26. or.).
  - II.1. Oinarrizko errenta eta gizarte-bazterketa (26. or.).
  - II.2. Oinarrizko errentaren kontzeptua eta errenta emateko baldintzak (27. or.).
  - II.3. Oinarrizko errenta emateko prozedura (29. or.).
  - II.4. Oinarrizko errenta kudeatzeko organoak (31. or.).
- III. Helburua eta norainokoa (31. or.).
- IV. Ondorioak eta gomendio orokorrak (32. or.).
  1. eranskina. Oinarrizko errenta jasotzen duten familiei buruzko txostenaren laburpena (43. or.).
  2. eranskina. Gizarteratze-adierazle nagusiak (49. or.).
 Behin-behineko txostenari egindako alegazioak (50. or.).  
 Aurkeztutako alegazioei Comptos Ganberak emandako erantzuna (50. or.).

#### I. SARRERA

2010eko apirilaren 12an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eskatuta, erabaki zuen Comptos Ganberari honakoa eskatzea:

“Txosten bat, lehentasunez egina, Gizarte Zerbitzuen zorroak 69/2008 Foru Dekretuaren bitartez garaturiko foru araudiaren aplikazioari eta betetzeari buruzkoa; halaber, Nafarroako 2009ko eta

2010eko Aurrekontu Orokorretan jasotako aurrekontu-ahaleginen bidez lortutako helburuei eta artatutako pertsona-kopuruari, oinarrizko errenta izeneko laguntza ekonomikoak izapidetzeko epeei eta laguntza horiek emateari buruzkoa ere. Txostenean orobat jasoko dira beste alderdi osagarri batzuk, baldin eta erakunde horren iritziz ezagutu eta jorratu beharrekoak badira.

Azken finean, Comptos Ganberaren lanean ezarritako helburua, gutxienez ere, ondokoak zehaztea izan liteke, ezertan ere galarazi gabe erakunde horrek, egoki iritziz gero, zabaldu eta osatu egin lezakeela txostena:

2009. urtean:

- 2009an oinarrizko errenta eskatu duten pertsonen kopurua.
- 2009an ebatzitako espedienteen kopurua.
- 2009an espediente horiek ebazteko batez beste behar izan den denbora, eskabidea egin zenetik osorik ebatzi bitarte, eta 69/2008 Foru Dekretuan ezarritako epeak gainditu ote diren.
- 2009an laguntza ekonomiko horiek egiaz jasotzeko epeak, laguntza ematen denetik erabat betetzen den arte.
- 2009an atzerapen horiek justifika litzaketen arrazoiak, baldin eta arrazoirik badago.
- Kasua bada, hartutako edo planifikatutako neurriak, detektatutako balizko arazoak gainditzea bilatzen dutenak.

2010. urtean:

- 2010ean oinarrizko errenta eskatu duten pertsonen kopurua, eskatutako txostena egin den unera arte.
- 2010ean ebatzitako espedienteen kopurua, eskatutako txostena egin den unera arte.
- 2010ean aztertu den aldian, espediente horiek ebazteko batez beste behar izan den denbora, eskabidea egin zenetik osorik ebatzi bitarte, eta 69/2008 Foru Dekretuan ezarritako epeak gainditu ote diren.
- 2010ean aztertu den aldian, laguntza ekonomiko horiek egiaz jasotzeko epeak, laguntza ematen denetik erabat betetzen den arte.
- 2010ean aztertu den aldian, atzerapen horiek justifika litzaketen arrazoiak, baldin eta arrazoirik badago.

• Kasua bada, hartutako edo planifikatutako neurriak, detektatutako balizko arazoak gaintzea bilatzen dutenak.”

Eskaera hori betetze aldera, Comptos Ganberak 2010erako duen jarduketa-programaren barruan sartu da Oinarrizko errentaren kudeaketari buruzko fiskalizazio-txostena (2009-2010).

Lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako talde batek egin du, 2010eko ekainetik urrira bitartean. Era berean, Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Txostena lau epigrafetan dago banatuta, sarre-ra hau barne. Bigarren epigrafean, oinarrizko errentaren kontzeptuari eta kudeaketari buruzko gertakaririk aipagarrienen laburpena egiten da; hirugarrenean, lanaren helburuak eta norainokoa azaltzen dira, eta, laugarrenean, berriz, ateratako ondorioak eta gomendio orokorrak. Txostenak bi eranskin ditu, zeinetan informazio osagarria ematen baita oinarrizko errenta jasotzen duten etxeetan krisi ekonomikoak izan duen eraginari buruzko azterlan bateko ondorioen laburpenari buruz eta laneratze arloko neurrien adierazleen bilakaerari buruz.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernuko Gizarte Gaietako Departamentuko langileei, lan hau egiterakoan eman diguten laguntza-rengatik.

## **II. OINARRIZKO ERRENTA ETA HORREN KUDEAKETA.**

### **II.1. OINARRIZKO ERRENTA ETA GIZARTE-BAZTERKETA**

Oinarrizko errenta aldizkako prestazio ekonomiko bat da, bizirauteko oinarrizko gastuak ordain ditzan errenta horren onuradunak, baliabide ekonomikorik ez daukanak. Errentaren azken xedea da bazterturik edo baztertze-arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea.

Laguntza hori ez da isolaturik hartu behar; izan ere, beste neurri batzuekin batera, gizarte-bazterketaren aurkako borrokan txertatzen da, gizarte-bazterketa txirotasunaz edo baliabide ekonomiko- en urritasunaz harantzago doan kontzeptua baita.

Gizarte-bazterketatzat jotzen da “gizabanako batek pairatzen duen gizarte-deskalkifikazioko prozesua, zeinaren bidez pertsonak gizarteratzeko bi lokarri nagusien hauskortasuna areagotzen baita: gizarte-lokarriak bere zabalean hartuta (familia harremanak, erkidegoan parte hartzea eta politikan parte hartzea) eta enplegua.”

Ongizatearen Estatuaren funtsezko ezaugarri bat da premia-egoeretako babesa.

Gizarte-bazterketak eta horri lotutako adierazpide anitzek beharrezkoa egiten dute neurriak hartzea, pasiboak izatetik (prestazio ekonomiko hut-sak) proaktiboak izatera igaroko direnak, prestazio ekonomikoak enpleguaren eta gizarteratzearen bidez eskuratzea bilatzen baitu kontzepzio proaktibo horrek. Hori da Nafarroako Gobernuak 1998ko ekainaren 22an onetsi zuen Gizarte-bazterketaren aurkako 1998-2005 Planaren abiapuntua.

Plan horrek ondoko helburu orokorrak ditu:

1. Laguntza ekonomikoak ematea familia behartsuenei, haiei aukera emate aldera muturreko txirotasun-mailak gaintzen dituzten, laguntza horiek jasotzeko baldintza izaki gizarteratzeko programa adostu bat ezartzea (gutxieneko diru-sarrerak bermatzea).

2. Laneratze tresna berariazkoak ezartzea gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzat (laneko prestakuntza eta enplegua).

3. Etxebizitza edo bizileku duin bat edukitzean laguntzea sektorerik behartsuenei (etxebizitza).

4. Hezkuntza-integrazioa erraztea arazo sozialak dituzten taldeei (hezkuntza).

5. Bazterturako pertsonen osasun sistemaren baliabiden multzoa erabil dezaten bultzatzea, herritarrek oro har dituzten baldintza beretan (osasuna).

6. Banakako gizarteratze-prozesua gidatzea eta babestea, arazo sozialak dituen pertsona bakoitzaren aukeretara eta beharrezanetara egokিতuta (akonpainamendu soziala eta erantzunkidetasun soziala).

Hori lortzeko, Gizarte Gaietako Departamentuak programak garatzen ditu, prestazioak kudeatzen ditu eta gizarte-bazterketaren aurka borrokatzea bideratutako ekimenak bultzatzen ditu; txosten honen bigarren eranskinean jasotzen da gizarteratze-neurri horien adierazle nagusien bilakaera.

Halatan, gizarteratzeko eta laneratze ondoko prestazio ekonomikoak eta tresnak ezarri dira:

- Oinarrizko Errenta.
- Gizarteratzeko eta laneratze zentroak.
- Gizarteratzeko eta laneratze ekipoak.
- Gizarteratzeko ekipoak etxebizitzaren arloan.
- Egoitza-plaza bat izate aldera, familiaren egoera ebaluatze zerbitzua.

- Egoitzako arreta zerbitzua.
- Etxerik gabeko pertsonentzako harrera-zerbitzua.
- Gizartean bazterturik dauden pertsonentzako larrialdiko aparteko laguntzak.
- Diru-laguntzak, nahi erara erabiltzekoak, komunitate terapeutikoan tratamendua jasotzen dutenentzat.
- Familia- eta gizarte-integratzaileko laguntzak.
- Diru-laguntzak eta akonpainamendu soziala ingurune irekian, moldagabezia sozialean dauden pertsonentzat.
- Zentro okupazionalaren zerbitzua gizartean bazterturik dauden pertsonentzat.
- Babestutako enplegu soziala.
- Enpresetan laneratzeko laguntzak.
- Banakako lan-proiektuetarako laguntzak.
- Gizarteratze-etxebizitza bat eskuratzeko laguntzak.
- Gizarteratzearen arloan aritzen diren irabazi-asmorik gabeko gizarte ekimeneko entitateentzako diru-laguntzak.

Prestazio eta zerbitzu horiek Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuan jasota ageri dira; arlo honetan, guztira, 17 prestazio jasotzen dira, eta horietako 11 bermatuak dira.

## II.2. OINARRIZKO ERRENTAREN KONTZEP-TUA ETA ERRENTA EMATEKO BALDINTZAK

Oinarrizko errenta da diru baliabiderik ez duten familientzako aldizkako prestazio ekonomikoa, oinarrizko premiei aurre egiteko eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarteratzea sustatzeko helburua duena. Prestazio osagarri bat da, beste edozein motatako gizarte baliabide eta prestazio ekonomikoren ordezkia.

Gizarte zerbitzuen zorroaren arabera, prestazio hau "bermatua" da; alegia, eskubide subjektibo gisa exijitzekoa, eta aurrekontuan unean-unean dagoen zuzkidurarekin zerikusirik ez duena.

Ondoko baldintzak bete behar dira:

### Onuradunak

25 urte baino gehiago eta 65 urte baino gutxiago edukitzea. 25 urtetik beheitikoko ere jaso dezakete, baldin eta gizartean bazterturik dagoen edo egoteko arriskuan dagoen familia-unitate independente bat osatzen badute.

Familia-unitateak bere baitan hartzen ditu eskatzailea eta, kasua bada, harekin bizi diren pertsonak, ezkontuta daudelako edo gisako afektibitate-harremana dutelako, zein ere den haien sexu-joera, edo bigarren maila bitarteko odol-ahaidetasuna eta lehen mailako ezkontza-ahaidetasuna dutelako.

### Errenta jasotzeko baldintzak:

- Laneratze eta gizarteratze proiektu batean sartuta egotea.
- Eskaera egin aurreko urtean Nafarroan modu jarraituan egoitza eduki izana.
- Legozkiokoen mota orotako pentsioak edo sorospinak eskatu izana aurretiaz administratziotako edozeini eta Gizarte Segurantzari.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin gizarteratze-eta laneratze-akordio bat sinatu izana, salbuespenak salbuespen, laneratzea eta gizarteratzea helburu.
- Prestaziorako ezarritako diru-sarrerak baino txikiagoak edukitzea.

Salbuespenez, familia-unitateek prestazioa jaso ahalko dute baldintza guztiak bete ez arren, baldin eta familia premia bereziko egoeran jartzen duten inguruabarrak gertatzen badira.

### Aurkezteko epea

### Urte osoa

### Zerbitzuaren intentsitatea

- Zenbatekoa: ateratzen da elkarlotuz lanbide arteko gutxieneko soldataren ehunekoa –urtero ezarriko da–, dir-usarrera berekiak eta familia-unitatea osatzen duten kideen kopurua, ondoko gehieneko eskalaren arabera:

Familia-unitateko kideak	2009		2010	
	LGS %	Hileko gehieneko zenbatekoa (eurotan)	LGS %	Hileko gehieneko zenbatekoa (eurotan)
1	90	561,60	100	633,30
2	110	686,40	120	759,96
3	120	748,80	130	823,29
4	130	811,20	140	886,62
5	140	873,60	150	949,95
6 edo gehiago	150	936,00		

- Mugak: Haren diru-sarrera berekiei erreparatuta, familiako gehienekoa LGS-ren ehuneko 150 izanen da; gutxienekoa, berriz, ez da inolaz ere izanen LGS-ren ehuneko 10 baino txikiagoa.

- Iraupena: sei hilabete, beste horrenbesteko epeetan modu jarraituan luza daitekeena, gehieenez ere bi urte egin arte. Salbuespenez, eta kontseilariaren foru agindu bidez, gehieneko epe hori gainditu ahalko da, baldin eta arrazoi bereziak gertatzen badira; halakoetan, orobat, arestiko paragrafoetan adierazitako zenbatekoa ez den beste bat ezarri ahalko da oinarrizko errentarako.

#### Emateko epea

Gizarte zerbitzuen zorroak berrogeita bost eguneko epea ezartzen du, Departamentuan eskabidea aurkeztu denetik aitzina; onuradunak indarkeria sexista pairatzen duten emakumeak badira, berriz, epea hilabetekoa izanen da. 2008ra arte, epe orokorra bi hilabetekoa zen, eskabidea egiten zenetik aitzina.

Zorro horrek berak ezartzen du, ordea, oinarrizko errentaren sistemarako sarbidea oinarrizko gizarte zerbitzuetan egin behar dela; izan ere, errenta emateko alde aurretik eskatzen da oinarrizko gizarte zerbitzuek eskatzailearen balorazioa egin izana eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoteko arriskuan dagoela erabaki izana. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eginkizun hori oinarrizko laguntzako bi prestazio bermatuta gautzen da:

- Harrera, orientazioa, balorazioa eta diagnostiko soziala eta/edo gizarte- eta hezkuntza-arloko egiteko zerbitzua.

- Prestazioak izapidetzeko zerbitzua.

Bi prestazio horiei dagokienez, zeinek bere epea dauka: hilabete, horietako bakoitzak.

Hortaz, ondokoa da oinarrizko errenta izapidetzeko egiazko epea: bi hilabete oinarrizko gizarte

zerbitzuen kasuan, eta 45 egun, Departamentuaren kasuan.

#### Nahitaezko dokumentazioa

- Eskabidea, berariazko inprimakian (oinarrizko gizarte zerbitzuetan jaso ahalko da) behar bezala beteta eta interesdunak sinatuta.

- Oinarrizko gizarte zerbitzuak eginiko gizarte-txostena.

- Nortasun agiriaren fotokopia, egoitza-baime-narena (Atzerritarren Identifikazio-txartela) edo, kasua bada, eskatzailearen nahiz familia-unitateko gainontzeko kideen pasaportearena eta Familia Liburuarena.

- Eskatzailearen eta haren familia-unitateko kide guztien diru-sarreraren frogagiriak (nominak, prestazioak, pentsioak, sorospenak, lanerako ezintasun iragankorra), egungoak eta azken sei hilabeteetakoak (eskabidea egin den hilabetekoa barne).

- Gizarteratze- eta laneratze-akordioa, ezarritako ereduari jarraikiz.

- Banantze edo dibortzio kasuetan, hitzarmen arau-emailea edo epai judiziala eta, kasua bada, ezarritako pentsioa ez ordaintzeagatik abiarazitako ekintza judizialak, baldin eta jada jasota ez badaude oinarrizko gizarte zerbitzuen espedientean.

- Transferentzia bidezko ordainketa egiteko eskabidea.

- Errola-zurtagiria(k), laguntza-eskaera egin aurreko urtean Nafarroan modu jarrituan egoitza eduki izana frogatzen du(t)ena.

- Bizikidetasun-zurtagiria, zeinetan jasoko baitira etxebizitza berean elkarrekin bizi diren pertsona guztien izenak, odol- edo/eta ezkontza-ahaidetasuna zehaztuta.

### Laneratze- eta gizarteratze-akordioa

Laneratze- eta gizarteratze-akordioa bi hilabete-ko epean sinatu beharra dago, oinarrizko errenta eman izana jakinarazten denetik aitzina. Akordioak berekin inplizituki darama oinarrizko gizarte zerbitzuen eta laneratze- eta gizarteratze-ekipoen akonpaimendu soziala edo jarraipena. Batzuek nahiz besteek txosten bat aurkeztuko diote Departamentuari, laneratze- eta gizarteratze-prozesuan muntako aldataririk egon baldin bada, horren berri emateko.

Akordio horrek Administrazioak emanen dituen laguntzak bilduko ditu, bai eta onuradunek prozesu hori burutzeko ibilbidean hartutako konpromisoak ere. Akordio horretan sar litezkeen ekintzak dirateke:

- Egonkortasun pertsonala, bizikidetasun-oreka eta gizarteratzea nahiz parte-hartze soziala sustatzeko ekintzak, bereziki eguneroko bizitzako ingurunean.
- Familia-unitateko adingabeen derrigorrezko eskolatzeko ziurtatzeko ekintzak.
- Hezkuntza nahiz prestakuntza arloko ezagutza berriak eskuratzeko alde aurreko azturak eta trebetasunak lortzeko eta garatzeko ekintzak.
- Prestakuntza-jarduera berariazkoak edo prestakuntza maila nahiz gaitasun profesionalak lanmerkatuaren eskakizunetara egokitzea ahalbidetzen dutenak.
- Soldatuko lanpostu bat edo autoenpleguko proiektu baten bidezkoa lortzea ahalbidetuko duten ekintzak.
- Osasun sistema orokorrean sartzea erraztuko duten ekintzak, bereziki tratamendu mediko espezializatua behar den kasuetan edo desintoxikatze-ko eta mendekotasuna gainditzeko ekintza berariazkoak behar diren kasuetan.
- Babes-zentroetan harrera eman zaien adingabeen desinstituzionalizazio- eta gizarteratze-prozesura bideratutako ekintzak.
- Gizarteratzea edo laneratzea erraztuko duten beste ekintza batzuk.
- Akordioan ezin izanen dira sartu lan-izaerakotzat jotzen ahal diren jarduerak, non eta atzean ez duten gisa horretako kontratu bat.

### II.3. OINARRIZKO ERRENTA EMATEKO PROZEDURA.

Bi prozedura daude: arrunta eta erraztua.

#### a. Prozedura arrunta

120/1999 Foru Dekretuan eta hura garatzen duen erregelamenduan jasotzen dena. Honakoa da funtsean:

- Eskabidea.- Interesdunak eskatuta abiarazten da espedientea, eredu normalizatu batean eta eskatutako dokumentazioa aurkeztuta; hori guztia oinarrizko gizarte zerbitzuetan edo araudi orokor-rrak ezarritako tokietan egin beharra dago. Oro har, prozedura gizarte zerbitzuetan abiarazten da, eta horiek baloratzen dute, prozedura abiarazi aurretik, eskatzaileak baldintzak betetzen ote dituen.

#### • Dokumentazioa

- Ondasunari buruzko zinpeko aitortpena. Familia-unitate osoaren baliabide ekonomikoak, azken sei hilekokoak, ezin dira iritsi oinarrizko errentarako unean-unean aurreikusitako zenbatekora.

- Etxebizitza berean elkarrekin bizi diren pertsonen eta eskatzailearekiko harremanari buruzko zinpeko aitortpena.

- Oinarrizko errenta eman izana jakinarazten denetik gehienez ere bi hilabetean laneratze- eta gizarteratze-akordio bat sinatzeko konpromisoa.

- Oinarrizko gizarte zerbitzuari familia-unitatearen osieran edo egoera ekonomikoan gertatutako edozein aldaketa 15 eguneko epean jakinarazteko konpromisoa, baldin eta aldaketak baliabide ekonomikoen zenbaketari edo jaso beharreko dirukopuruaren zenbaketari eragiten badio.

- Eskatzailearen eta familia-unitateko gainontzeko kideen Nortasun Agiriaren edo pasaportearen fotokopia (halakorik eduki behar dutenena) eta Familia Liburuarena (gaur egun halakorik ez dago), baldin eta jada jasota ez badaude oinarrizko gizarte zerbitzuaren familia-espedientean.

- Banantze edo dibortzioari buruzko hitzarmen arau-emailea edo epai judiziala eta, kasua bada, ezarritako pentsioa ez ordaintzeagatik abiarazitako ekintza judizialak, baldin eta jada jasota ez badaude oinarrizko gizarte zerbitzuaren espedientean.

- Eskatzaileak, baldin eta etxebizitza egonkorrik ez badu, eskabidea izapidetzen duen oinarrizko gizarte zerbitzuan ezarriko du bere etxebizitza, arau honen ondorioetarako, kasu bada bertan jasoko baitu laguntza eta bertan egingen baita laneratze- eta gizarteratze-akordioaren jarraipena.

Ez dute laneratze- eta gizarteratze-akordioa egin behar izanen dirua jaso besterik egin behar ez dutenek eta, oinarrizko gizarte zerbitzuen eta laneratze- eta gizarteratze-ekipoaren iritziz, beste-lako onurarik behar ez dutenek.

- Oinarrizko gizarte zerbitzuek eta Departamentuak izapidetzea. Eskabidea jasotzen denetik 20 egun naturaleko gehieneko epean, oinarrizko

gizarte zerbitzuak espedientea osatuko du eta Departamentuari igorriko dio.

Espedienteak, arestian adierazitako dokumentazioaz gain, eredu normalizatuaren arabeko txosten sozial bat edukiko du, gutxienez ere ondoakoak jasoko dituen:

- Eskabideari nahitaez erantsitako dokumentuetan jasotako datuak –oinarrizko gizarte zerbitzuen familia-espedientearen sartuko dira horien fotokopiak– eta familia-unitatea osatzen duten pertsonen egiazko elkarbizitza buruzko gainontzeko datuak.

- Udalerrialdan jasotako datuak edo bizilekua frogatzen duten bestelako datu batzuk.

- Bazterketa egoerari edo egoera horretan egoteko arriskuari buruzko azalpena eta balorazioa, bizitako bazterketa-inkorporazio prozesua, laneratze- eta gizarteratze-prozesu baten premia (edo premiarik eza) eta horren aurreko jarrera pertsonala.

- Oinarrizko gizarte zerbitzuak zuzenenean nahiz zeharka ikasitako beste datu batzuk, ekonomia-beharrizaneko egoerari buruzkoak.

Departamentuko organo eskudunak Ekonomia eta Ogasun Departamentuan egiaztatuko ditu familia-unitatearen diru-sarrereri eta ondareari buruzko datuak eta beharrizan-egoera baloratzeko balio dezaketen bestelako datuak, edozein administrazioaren esku daudenak. Dokumentazioan akatsak edo kontraesanak ageri baldin badira, oinarrizko gizarte zerbitzuak edo Departamentuak eskatzaileari eskatu ahalko diote 10 eguneko epean aurkez ditzan espedienteak osatzeko beharrezkoak diren datuak edo dokumentuak, eta ohar-taraziko diote hori egin ezean eskaera atzera botako dela eta espedienteak bestelako izapiderik gabe artxibatuko dela.

- Ebazpena. Departamentuko organo eskudunak modu arrazoituan emanen du ebazpena, eta bi hilabeteko epean (1999ko ekainetik 2008ko uztailera bitarteko eskabideen kasuan) edo 45 eguneko epean (2008ko uztailaren 10etik aitzina-koetan) jakinarazi beharko da.

- Sortzapena eta ordainketa. Oinarrizko errenta sei hilabeteko epeetarako ematen da, eta gehienez ere 24 hilabeterako. Luzapen horietarako beharrezkoa da, soilik, eskabidea berriz aurkeztea eta oinarrizko gizarte zerbitzuak eta laneratze- eta gizarteratze-ekipoak txostena egitea, une horretara bitarte jarraitutako prozesuaren berri emanez.

Salbuespenez, eta kontseilariaren foru agindu bidez, gehieneko epe hori gainditu ahalko da, bal-

din eta arrazoi bereziak gertatzen badira; halakoe-tan, orobat, araudi orokorrean adierazitako zenbatekoa ez den beste bat ezarri ahalko da oinarrizko errentarako.

#### b. Prozedura erraztua

Urriaren 14ko 313/2009 Foru Aginduaren bidez prozedura aldatu eta oinarrizko errentaren onuradun jakin batzuei aplikatzeko zaien izapidetze erraztua arautu zen. Foru aginduan adierazten da prozedura arruntak atzeratu egiten duela unean unean gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen errenta eskuratzea, baliabide ekonomikorik ezagatik soilik. Hartara, laneratze- eta gizarteratze-akordioaren baldintza kentzen zaie ondoko langileei:

- Beste inoren konturako langileei, azken hamabi hilabeteetan langabezia prestazioa jaso eta agortu badute edo oinarrizko errentarengatik egokituko litzaiekeena baino zenbateko txikiagoa jasotzen badute.

- Beren konturako langileei, gutxienez ere sei hilabete kotizatu badute azken urtean.

#### Prozedura horren baldintzak:

- Departamentuari eskaria egitea eredu normalizatuan, jasota utzita prozedura erraztua aplikatzen dela, oinarrizko gizarte zerbitzuetan izapidetuta. Oinarrizko zerbitzuei dagokie foru agindu honetan araututako prozedura erraztua aplikatzea justifikatzen duten inguruabarrak eta baldintzak baloratzea.

- Eskabideari erantsi beharreko dokumentazioa:

- Eskatzailearen eta bizikidetzako familia unitateko gainerako kideen identifikazio pertsonala.

- Familia liburua.

- Eskaera egin aurreko urtean Nafarroan modu jarraituan egoitza eduki izana frogatzen duen dokumentua.

- Gaur egun zein helbidetan bizi diren, bertako bizikidetasun agiria.

- Enpleguaren Institutu Nazionalaren egiaztagiria, prestazioa jasotzen ari dela edo azken hamabi hilabeteetan prestazioa jaso dela egiaztatzeko, beste inoren konturako langileen kasuan; beren konturako langileen kasuan, diru-sarrereri buruzko zinpeko aitortzea eta Gizarte Segurantzako azken kotizazio orriaren frogagiria.

- Familia unitateko kide guztien diru-sarrereren ziurtagiriak (nominak, pentsioak, prestazioak edota entitate publiko edo pribatuetatik jasotako

sorospenak) eta/edo diru-sarrera horiek eskatu izanaren frogagiria, horrelakoak jasotzeko eskubidea izanez gero.

– Transferentzia bidez ordaintzeko eskaera.

- Eskabidea bete ondoren, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentura bidaliko da, baloratzeko eta laguntza kudeatzeko, araudi orokorraren arabera.

- Prozedura hori ezin izanen da erabili ondoko ondoko bialdi baino gehiagotan. Prestazioa urtebetez jarraian jaso ondoren, jatorrizko egoerak bere horretan irauten badu, eskabide berria edo prestazioaren berriztapena bide arruntetik izapidetu beharko da.

#### II.4. OINARRIZKO ERRENTA KUDEATZEKO ORGANOKAK.

Udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuei dagokie oinarrizko errentaren eskabidearen izapidea abiaraztea.

Oinarrizko errenta ematearen izapidetako eskumena Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuarena da, eta, zehazki, Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiarena.

Zuzendaritza nagusi horren barruan dago Gizarteratzearen Atala eta Zerbitzua.

Halatan, Gizarteratzearen Zerbitzuari dagokio:

a) Gizarteratze-prestazioak eta –programak koordinatu, kudeatu, kontrolatu eta ebaluatzea.

b) Gizarteratze-programen exekuzioari begira beste unitate, departamentu eta erakunde batzuekin koordinatzeko egiturak sustatzea.

c) Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzuekin lankidetzan aritzea Departamentuaren programen eta planen diseinua, ebaluazioa eta jarraipena egiteko.

d) Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzuak gizarteratze arloko langileentzat taxututako prestakuntza programen koordinazioa, kudeaketa, kontrola eta ebaluazioa.

Gizarteratze Atalak ondoko eginkizunak ditu, besteak beste:

a) Gutxieneko Diru-sarreraren Programaren kudeaketa eta izapidetzea.

b) Departamentuan ezarritako gizarteratze-prestazioen eta –programen kudeaketa eta izapidetzea.

c) Gizarteratze arloko koordinazio- eta ebaluazio-baliabideetan parte hartzea.

d) Departamentuen edo erakundeen arteko lan-talde teknikoetan parte hartzea, gizarteratzearen arloan.

e) Kotizazio gabeko sorospenen eta pentsioen espedienteen kontrola, jarraipena eta izapidetzea.

Atal honi atxikita dago, 2007ko abuztutik aitzina<sup>(1)</sup>, Pentsioen Bulegoa, zeinaren eginkizunak baitira, besteak beste, kotizazio gabeko sorospenen eta pentsioen espedienteak jaso, aztertu eta baloratzea eta alargun-pentsioen osagarria izapidetzea.

### III. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Parlamentuaren eskariaren arabera, lan honekin honako helburuak bilatzen ditugu:

1. Oinarrizko errentaren kudeaketan aplikatutako administrazio-prozeduraren egokitasuna egiaztatzea, hautemanen, kasua bada, prozeduraren ahulguneak, haren aplikazio praktikoa eragozten dutenak, eta ahulgune horiek gaintitze aldera kudeaketaren arloan jarraitu beharko liratekeen gomendioak proposatzea.

2. Gizarte-prestazio honi buruzko estatistika nahiz aurrekontu arloko informazioa lortzea aztertutako epeari dagokionez, Parlamentuaren eskarekin bat.

Lanaren norainokoari dagokionez, oinarrizko errentaren kudeaketa prozesuari buruzko dokumentazio orokorra, prozedura-eskuliburua eta errenta emateko espedienteak aztertu dira.

- Prestazio hau eman, kudeatu eta kontrolatzeko aplikatutako prozedura aztertu da, arreta berezia jarrita araudi indardunetan ezarritako epeen betetzean, hala laguntza-eskariaren administrazio-izapidetzeari nola egiaz gauzatzeari dagokienez.

- Prozedura hori egiaztatu da eskatzaileen eta onuradunen lagin baten bidez.

- Aztertutako epeari buruzko aurrekontu eta estatistika arloko informazioa lortu da.

Parlamentuak eginiko eskaerarekin bat, 2009ko ekitaldia eta 2010eko lehen seihilekoa

(1) Paragrafo hau aldatu da, 1. alegazioaren ondorioz.

aztertu dira. Zenbait alderditan, berriz, 2007tik aitzinako bilakaera ere aztertu da.

Hona oinarritzko errentaren kudeaketari aplikatu beharreko oinarritzko araudia:

- Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea.

- Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legea.

- Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legea.

- Oinarritzko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua.

- Abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Agindua, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak emana, zeinaren bidez garatzen baita Oinarritzko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua.

- Irailaren 10eko 69/2008 Foru Dekretua, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duena.

- 313/2009 Foru Agindua, urriaren 14koa, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak emana, Oinarritzko Errentaren onuradun jakin batzuei aplikatzen ahal zaien tramitazio prozedura erraztua arautzen duena.

- Oinarritzko errentari buruzko prozedura-eskuliburua, Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiak egina.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo laguntza hauek emateko espedienteak berrikustekoa.

#### **IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIO OROKORRAK**

Jarritako helburuak kontuan hartuta, hona egindako lanetik ateratzen diren ondorio orokorrak:

1. Oinarritzko errenta da diru baliabiderik ez duten familientzako aldizkako prestazio ekonomikoa, helburu bikoitzarekin ematen dena:

a. Etxe horietako oinarritzko beharrianak aseptzea

b. Bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizartratzea sustatzea.

Gizarte zerbitzuen zorroaren arabera, prestazio hau "bermatua" da; alegia, eskubide subjektibo gisa exijitzekoa, eta aurrekontuan unean-unean dagoen zuzkidurarekin zerikusirik ez duena.

Ongizatearen Estatuaren funtsezko ezaugarri bat da premia-egoeretako babesa, eta hala dago jasota Espainiako Konstituzioan nahiz gisa horretako egoerak konpontze aldera onetsitako foru araudian.

2006tik aitzina, Nafarroako gizarte zerbitzuen sistema publikoak sistema asistentziala izateari utzi zion, eta berme-sistema bat izatera igaro zen, zeinetan pertsonak gizarte zerbitzuen zenbait prestaziotarako eskubidea duten.

2. 2008aren amaieratik aitzina, krisi ekonomikoak eragin berezia izan du lan-merkatuan, eta Nafarroako familia askoren bizi-baldintzek okerrera egitea eragin du; halatan, nabarmen igo dira oinarritzko errentaren laguntza jasotzeko eskabideak eta Nafarroako Gobernuak laguntza horiek ordaintze aldera aurrekontuetatik baliatu behar izan duen diru-kopurua. Okerrera egite horrek orobat eskatzen du administrazio publikoek erantzun azkar eta zalua ematea, laguntza horiek albat lasterren hel dakizkien onuradunei.

1. helburua. Oinarritzko errentaren kudeaketan aplikatutako administrazio-prozeduraren egokitasuna egiaztatzea, hautemanez, kasua bada, prozeduraren ahulguneak, haren aplikazio praktikoa eragozten dutenak.

3. Langileak. Oinarritzko errenta emateko esku-mena Nafarroako Gobernuak Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuari dago; eta, zehazki, Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiari, eta, horren barruan, Gizartratzearen Atalari eta Zerbitzuari.

Ondoko taulan aztertzen da atal horretako langileen bilakaera:



Lanpostua	organikoa	lanpostuak	lanpostuak
Atalburua	1	1	1
Administrariak	7	7	11
Laguntzaileak	1	-	-
Hezitzaileak	1	1	1
Erdi maila	2	2	2
Teknikariak	14	11	15
Guztira	26	22	30


Alegia, 2009tik 2010era, betetako lanpostuen gehikuntza teknikarien lanpostuetan metatu da –gizarte laguntzaileak, gizarte langileak eta gizarte hezitzaileak–, aldi baterako lau lanposturekin indartuta 2010eko otsailetik, bai eta administrazioko langileen lanpostuetan, 2010eko otsailetik abuztura bitarte lau lanposturekin indartuta. 2011rako, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak adminis-

trazioko langileen eta teknikarien plantilla handitzea baimendu du (handitzea zenbaterainokoa izanen den behin betikoz zehaztea falta da).

4. Teknikarien gehikuntza –ehuneko 36koa–, garrantzitsua izan arren<sup>(2)</sup>, eskabideen kopurua eta emandako laguntzen kopurua baino txikiagoa izan da; izan ere, horiek bikoiztu egin dira azken urteotan, ondoko taulan ikus daitekeenez:

Aurkeztutako eskaerak	4.183	5.799	10.766	6.767
Onarturiko eskaerak	3.307	4.524	8.716	5.407
Emandako laguntzen ehunekoak	79	78	81	80

Hona, grafiko bidez, aurkeztutako eskabideen eta emandako laguntzen bilakaera 2007tik 2009ra:



(2) Paragrafo hau aldatu da, 2. alegazioaren ondorioz.

Nabarmendu nahi dugu emandako laguntzen ehunekoa oso antzekoa izan dela aztertu dugun epean –ehuneko 80, gutxi gorabehera–, eskabideak igo arren.

Teknikariek 2009an izandako lan-zama ondoko taulan ageri da jasota:

Teknikari kopurua	11
Langile horiek egindako orduak, guztira	17.512
Aurkeztutako eskabideen kopurua	10.766
Eskabide bakoitzari batez beste eskainitako ordu kopurua	1,63

5. Gizarte Gaietako Departamentuak Oinarrizko Errentari buruzko Prozedura-eskuliburua prestatu du laguntza horiek emateko, baloratzeko eta izapidetzeko. Eskuliburu horrek laguntza horien izapidetzean dauden urratsak jasotzen ditu –guztira, zortzi–, bai eta laguntzak kudeatzeari eta ustiatzeari dagokienez aplikatzekoa den datu-basearekiko lotura ere.

Ganbera honek aitortzen du Departamentuak ahalegin bat egin duela laguntza horiek kudeatzeko.

Egindako lanean ikusten da prozedura horretan badirela hobetzeko moduko alderdiak; horien artean, ondokoak nabarmendu nahi ditugu (kontuan hartu behar da Departamentua ezartzen ari dela aipatzen diren alderdirik gehienak):

a. Aplikazio informatikoan komeniko litzateke, akatsak ekidite aldera:

- Eskabidearen dataren eta laguntza emateko epeen eremua sartzean aplikazioak berak ohartaraztea, gutxienez ere, egon litezkeen data inkoherentei buruz.

- Arrazoizko malgutasun baten barruan, modu automatikoan ezartzea zein izanen den behin betikoz emanen den diru-kopurua, hartara ekidinez eskuz eginiko kalkuletatik eratorritako akatsak.

- Dokumentazioa aurkezteko epea noiz bukatzen den ohartaraztea, kasua bada artxibatu ahal izateko epea gaintzen duten espedienteak.

- Ebazpen-proposamena eta gizarteratze-akordioaren eskabidea modu informatikoan lotzea.

b. Oinarrizko gizarte zerbitzuen zirkuitua eta komunikazioa hobetzea, zerbitzu horiek laguntza hauek kudeatzeari dagokionez funtsezko zeregina dute eta (eskatzailearen benetako egoera zein den bai baitakite). Interesgarria izanen litzateke aukera ematea oinarrizko gizarte zerbitzuek aplikazioan abiaraz dezaten espedientea, izapidetzea eta epeak azkartze aldera. Une honetan espedientea

zertan den kontsultatzeko aukera baizik ez dute, eta ez zaie formalki jakinarazten noiz bukatzen den balorazioa.

c. Besteak beste, ondokoak aztertu beharko lirateke:

- Balorazio-prozesua bukatzeko epea.

- Egindako azterketaren euskarri gisa espedienteetan sartu beharreko dokumentuak: Gizarte Segurantzaren eta Ogasunaren datu-baseen kontsulta, Cáritas-ekiko komunikazioa, laguntza eman izana interesdunari jakinaraztea...

- Moduluak jarduera irregularrei aplikatzeko irizpideak.

- SIPSS aplikazioan bete beharreko alderdiak: eremua, oharrak, irizpideak eta laguntza ukatzeko arrazoiak, teknikariek bete beharrekoa...

Horretaz gain, kudeaketa sistemaren aldaketa bat ere ari da garatzen, egun teknikariek egiten dituzten zenbait lan administrariak har ditzaten beren gain, teknikariak balorazio-eginkizunetan jardun daitezzen batik bat. Oinarrizko gizarte zerbitzuen eginkizun zehatzak ere ari dira aztertzen, Departamentua zuzenean ardura dadin horietaz (hartara, errepikatzea ekiditen da).

6. Iruña-Tuterako Cáritas-ekiko lankidetzak akordioa.

Elizbarrutiko Cáritas-ek bete izan ditu Administrazioarekin unean uneko lankidetzak-eginkizunak, zenbait kolektiboren larrialdi-egoerei aurre egite aldera. Gaur egungo egoera ekonomikoa ikusita, ordea, eginkizun hori orokortuz joan da, eta, nolabait ere, lankidetzak horren jatorrizko espiritua galdu da.

Hortaz, Diru-laguntzei buruzko Foru Legearen babesean, Gizarte Gaietako Departamentuak eta Cáritas-ek akordioak egin zituzten 2009an eta 2010ean, bi erakunde horien arteko lankidetzaren baldintzak eta prozedura arautzeko.

Akordio horien justifikazioa da laguntza ekonomikoaren eskabideak nabarmen ugaritu direla bizi dugun krisi ekonomiko honen kariaz, eta Administrazioak ezin izaten du beti eskaini erantzun zalu bat, eskatzaile jakin batzuen larrialdi-egoerei aurre egiteko. Larrialdi-egoera horietan, oinarrizko gizarte zerbitzuek eta Gizarteratzearen Atalak eskatuta, Cáritas-ek laguntza ekonomiko horien lehen ordainketaren zenbatekoa aurreratu ohi du, eta ondoren, Administrazioak diru hori itzuli ohi dio Cáritas-i.

Ordainetan, Cáritas-ek 25.000 euro jasotzen ditu urtean, aurrerakin horien kudeaketa gastuei aurre egiteko.

Finean, xedea damuturreko beharrizaneke egoera puntualen gaineko salbuespeneko jarduketa bat arautzea; interesdunei kalterik ez egitea bilatzen da, horrek haien gizarteratze prozesua kaltetuko lukeelako.

Hitzarmen horien oinarri arau-emaleei buruz ondokoa azpimarratu nahi dugu:

a. Diru-laguntzaren zenbatekoa –25.000 euro urte bakoitzerako– osotasunaren gaineko prezioaren arabera ezartzen da.

b. Laguntza horren xedea da Cáritas-ek emandako diru-aurrerakinek eragiten dituzten kudeaketa-gastuak ordaintzea.

c. Cáritas-ek zenbateko hori aplikatzearen justifikazioa da oinarritzko errentaren aurrerakinen bolumena justifikatzen duen urteko oroitidazkia. Hortaz, diru-laguntzaren justifikazioa ez dago lotuta aurrerakin horiek direla-eta Cáritas-ek egiaz egin ahal izan dituen kudeaketa-gastuekin.

2009an, Cáritas-ek, hitzarmen horren babesean, 1.061 laguntza aurreratu zituen guztira –oinarritzko errentako 999 eta aparteko laguntzetako 62–, 1,1 milioi egiten dutenak. Cáritas-ek aurreratutako laguntza-kopuruak 2009an emandako oinarritzko errentako laguntzen ehuneko 11 egiten du; laguntza horien zenbatekoak urte horretako gastu osoaren ehuneko 7 egiten du, eta ordainketa batez beste 17 egun aurreratzea dakar.

Cáritas-ek 2010eko azaroan zioenez, 2.100 laguntza aurreratu ditu ekitaldi horretan, eta horren kostua 2,1 milioikoa izan da. Zenbateko horiek erakusten dute, Departamentuak oraindik balioztatu ez baditu ere<sup>(3)</sup>, zein den entitate hori une honetan betetzen ari den egitekoaren garrantzia.

7. Oinarritzko errentaren prestazio ekonomikoen gaineko ikuskapen plana.

Beste edozein laguntza publikoren kasuan bezala, oinarritzko errenta emateko prozesua bukatuko litzateke kontrol prozedura multzo bat a posteriori aplikatzearekin, zeinaren bidez ziurtatu eta egiaztatuko bailitzateke prestazio horren onuradunak betekizunak eta baldintzak betetzen dituela.

Oinarritzko errentaren ezaugarri berariazkoek, batik batik azkar izapidetu beharrak eta hasierako epe motzak –sei hilabete–, zaildu egiten dute,

ordea, prestazioaren onuradunen gaineko kontrol-tresna iraunkorrek eta eragingarriak aplikatzea.

Hortaz, Departamentuak gizarte zerbitzuen arloko urteko ikuskapen planaren<sup>(4)</sup> barruan sartu du “oinarritzko errenta emateko araudian jasotzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzea. Bere-ziki, ondokoak:

1. *In situ* egiaztatzea oinarritzko errentaren laguntza jasotzen dutenek benetan duten bere bizilekua Gizarte Zerbitzuen Departamentuari jakinarazitako etxebizitzan.

2. Egiaztatzea oinarritzko errenta jasotzen dutenek lan-eskaintzarik baztertu ote duten justifikaziorik gabe.

Oinarritzko errentako 1.000 espediente aztertuko dira, bigarren atalari dagokionez; horietatik 100 espedientetan lehenengo atalaren ikuskapena ere egingen da.”

Lan-eskaintzak baztertzeari buruzko lana bukatu gabe dago txosten hau egin den egunean.

Lehenengo puntua –alegia, benetako bizilekua izateko baldintza– egiaztatzeko, gizarteratzearen atalak 105 jasotzaileko lagin bat aukeratu zuen, eta ondoko irizpideak baliatu zituen:

- 2009ko maiatzetik ekainera bitarte prestazioa jaso duten gizonak (bakarrik bizi direnak, bakarrik bizi eta seme-alabak dituztenak...). 500 bat onuradunek betetzen dute irizpide hori; hortaz, bostetik bat sartu da laginean.

- Nafarroako eremu geografiko ezberdinetakoak hautatu dira.

Ondoko taulan ageri dira 2010eko urrian izandako emaitzak, ikuskapenetik eta gizarteratzearen atalak gero egindako egiaztapenetatik heldu direnak:

	Zenbat
Zuzenak, lehendabiziko ikuskapenetik	40
Zuzenak, egindako egiaztapenenen ondorioz	27
Zehapen-espedientea ireki zaienak	15
Prestazioa zuhurtasunezko neurri gisa eteteko espedientea ireki zaienak	23
<b>Guztira</b>	<b>105</b>

Finean, urrian, aztertutako jasotzaileen ehuneko 36 inguruk zeukan anomaliaren edo irregularita-

(3) Paragrafo hau aldatu da, 3. alegazioaren ondorioz.

(4) Paragrafo hau aldatu da, 4. alegazioaren ondorioz.

sunen bat. Ehuneko handi samar hori bere testuiguruan aztertu behar da; izan ere, laginak a priori arrisku handiena zuten jasotzaileak hartu ditu.

Zehapen-espeditenteei dagokienez, horietako zazpiren emaitza izan da –data horretaz ari gara betiere– prestazioa amaiaraztea, laguntza itzuli behar izatea eta zehapena ezartzea. Zuhurtziazko etetearen espeditentetatik, 13 kasutan eman zaie behin betiko baja jasotzaileei.

2. helburua. Gizarte-prestazio honi buruzko estatistika nahiz aurrekontu arloko informazioa lortzea, Parlamentuaren eskerarekin bat.

Aurrekontua	2007	2008	2009	2010eko urria	Guztira
Eskariak (2006)	1.771.860				
Eskariak (2007)	4.818.120	2.126.481			6.944.601
Eskariak (2008)		6.758.880	4.493.595		11.252.475
Eskariak (2009)			15.747.774	9.897.887	25.645.661
Eskariak (2010)				12.870.365	12.870.365
Guztira	6.589.980	8.885.361	20.241.369	22.768.252	

Hartara, arestiko informazio horrekin bat, ikus daiteke oinarritzko errentaren ordainketak 2009tik aitzina bi aldiz baino gehiago igo zirela aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta 2010ean bere horretan jarraitu zuela gora egiteko joera horrek. Azken ekitaldi horri dagokionez, oinarritzko errentaren ordainketak 30 milioira hurbil daitezkeela uste dugu.

8. Oinarritzko errentatik heldu diren gastuen oihartzuna aurrekontuan.

Oinarritzko errentaren espeditenteei indarrean jarraitzen dutenez aurrekontu-ekitaldien artean, lortu beharreko aurrekontu-informazioa aldatu egiten da zer eperen arabera lortzen den. Horrenbestez, iruditu zaigu horren bilakaera ondoen erakusten duena dela ordainketak aztertzea kontuan hartuta zer ekitalditan egin zen eskabidea eta zer ekitalditan egin zen aurrekontu-egozpena; hona, bada, ordainketak 2010eko urrian:

Igoera hori zor zaio emandako laguntzen kopurua nabarmen igo izanari eta laguntzaren zenbatekoa bera igo izanari, lanbide arteko gutxieneko soldataren gaineko ehunekoak igo baita. Halatan, adibidez, oinarritzko errentaren jasotzaile bati dagokionez, lanbide arteko gutxieneko soldataren gaineko erreferentziako ehunekoak, gehieneko laguntzaren zenbatekoa ezartzen duena, ondoko bilakaera izan du:

Jasotzaile bakar baten oinarritzko errentaren gehieneko zenbatekoa	2008	2009	2010
Lanbide arteko guxieneko soldataren gaineko %	% 85	% 90	% 100

9. Oinarritzko errentaren eskabideak eta emandako laguntzak

Ondoko taulan ageri da aztertutako epean –2010eko abuztura bitarte– aurkeztutako eskabideen eta emandako laguntzen bilakaera:

	2007	2008	2009	2010eko abuztua
Aurkeztutako eskaerak	4.183	5.799	10.766	6.767
Onarturiko eskabideak	3.307	4.524	8.716	5.407
Artxibatutako eskabideak	230	308	640	304
Emandako laguntzen ehunekoak	79	78	81	80

Alegia, 2009an aurkeztutako eskabideak eta 2007koak alderatuz gero, aldaketa ehuneko 257koa da; emandako laguntzei dagokienez, berriz, aldea ehuneko 263koa da. 2010eko abuztura bitarte, 2009an izandako joera mantendu da.

Garrantzitsua da azpimarratzea ezen, igoera handi hori gorabehera, emandako laguntzek egi-

ten duten ehunekoa bere horretan mantentzen dela aurkeztutako eskabideekin alderatuta (ehuneko 80 inguru).

#### 10. Ukatutako eskabideak

Ondoko taulan ageri dira aipatutako epean ukatutako eskabideak:

	2007	2008	2009	2010eko abuztua
Ukatutako eskabideak	646	967	1.410	788

Hortaz, ehuneko 218 aldatu dira 2007 eta 2009 bitarte ukatutako eskabideak.

Arrazoiari dagokienez, ondokoak izan dira nabarmenenak 2009an, kontuan hartuta ukoa etor daitekeela aipatzen diren zenbait arrazoi batera gertatzetik:

Ukatzeko arrazoiak	%
Gutxieneko diru-sarreren baremoa gainditzea	58
Bizilekua Nafarroan izatea ez egiaztatzea	27
Aurretiaz beste prestazio batzuk ez eskatzea	14
Datuak ezkutatzea edo/eta informazio okerra ematea	8
Adin-muga eta etxe independentearen baldintza ez betetzea	8
Oinarrizko errentaren eta beste prestazio batzuen arteko bateraezintasuna	8
Gizarteratze akordioa ez sinatzea edo/eta ez betetzea	4
Lan eskaintza bati uko egitea	2
Gizarte bazterketako egoeran ez egotea	2
Beste zenbait	3

#### 11. Departamentuan izapidetzeko epea

Zerbitzuen Zorroarekin bat, laguntza horiek emateko epea 45 egunekoa da, eskabidea Departamentuan aurkezten denetik zenbatzen hasita; onuraduna indarkeria sexistaren biktima den emakume bat baldin bada, epea hilabetekoa izanen da. Epea ordainketa sortzeko fasera arte luzatzen

da, baina ez du hartzen onuradunari laguntza egiazki ordaintzen zaion data.

Ondoko taulan ageri da, Ganbera honek egin-dako azterketarekin bat, batez besteko izapidetze-eparearen bilakaera<sup>(5)</sup>, eskabidea aurkezten denetik ordainketa egiten denera artekoa :

	2009	2010eko abuztua
Batez besteko izapidetze-epea, eskabidea aurkezten denetik ordainketa egiten denera artekoa	76,9 egun	73,2 egun

(5) Azterketa honetan ez da aintzat hartu bi hilabeteko epea, aurretiaz Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek dutena eskatzailea gizarte-bazterketa egoeran dagoela edo arrisku hori duela baloratzeko.

Ordainketa sortu osteko 10 eguneko epean gauzatu ohi da benetako ordainketa.

2010ean egun gutxi batzuen murrizketa gertatu bazen ere -3 egun-, epeak luzaz gainditzen du

Departamentuan izapide dadin Zerbitzuen Zorroak ezarritako 45 eguneko epea. Halatan, eskabidea aurkezten denetik ordainketa sortzen den arteko epeak aztertuta, ondokoa ikus daiteke:

Izapidetzeko egunak	metatutako %	
	2009	2010eko abuztua
25	% 1,06	% 0,40
45 (Zerbitzuen Zorroan ezarritako epea)	% 10,47	% 3,66
50	% 17,40	% 6,11
70 (2010eko batez bestekoa)	% 44,28	% 48,91
75 (2009ko batez bestekoa)	% 48,68	% 58,84
80	% 56,91	% 73,30
85	% 66,03	% 80,10
90	% 70,47	% 84,75
100	% 83,10	% 94,30
120	% 93,08	% 98,42
130	% 95,97	% 99,29
150	% 98,94	% 99,94
+160	% 100	% 100

Alegia, 2009an izapidetutako espedienteen ehuneko 10,5 soilik eman ziren foru araudiak ezarzen duen 45 eguneko epearen barruan; 2010ean, ehuneko 4ra jaitsi da ehuneko hori.

2009ko espedienteen ehuneko 70 inguru 90 egun baino lehen izapidetzen dira; 2010ean, portzentaje hori ehuneko 85era igo da.

Epe horiek argitzeko arrazoen artetik bereziki nabarmendu nahi dugu Administrazioak informazio edo dokumentazio osagarria eskatzen diola eskatzaileari, hark igorritakoa osatze aldera; horrez gain, datu-baseko informazioan administra-

zio-akatsak egotea eta interesdunak errekursoak aurkeztu izana.

Halere, zehaztu beharra dago oinarrizko errenta premiazko beharrianak asetzeko prestazio bat dela. Hortaz, ez da beti lortzen ahal oreka bat izapidetze zalu eta azkarraren eta laguntza publikoaren onuradun orori eskatzen zaizkion baldintzen betetzea ziurra izateraren artean.

12. Oinarrizko errentaren laguntzak ezerezte, behin laguntza emanda.

2009ko ekitaldian eta 2010eko abuztura bitartekoan, 1.559 baja gertatu dira jada emanda zeuden laguntzetan. Hona arrazoi nagusiak:

Bajaren arrazoa	Guztira	%
Heriotza	20	1
Laneratzea, bere mota guztietan	749	48
Gizarteratze akordioa ez betetzea	45	3
Bizikidetasun egoera aldatzea	30	2
Egoera ekonomikoa aldatzea	113	7
Gizarteratze eta laneratze akordioa ez betetzea	404	26
Datuak ezkutatzea edo informazio okerra ematea	54	3
Lan eskaintza bati uko egitea	27	2
Beste erkidego batera aldatzea	44	3
Beste arrazoi batzuk	73	5
<b>Guztira</b>	<b>1.559</b>	<b>% 100</b>

Bajen ehuneko 48 gertatu da jasotzaileak lana aurkitu duelako, laneratze ekintza publikoaren barruko lan mota bat hain zuzen ere; horietako ehuneko 26, berriz, gizarteratze eta laneratze akordioa sinatu ez duten jasotzaileetatik heldu da.

### 13. Laguntzen batez besteko zenbatekoak

Ondoko taulan ageri da oinarrizko errentari buruzko adierazleen bilakaera

	2007	2008	2009	2010
LGSren bilakaera	570,60	600	624	633,30
Pertsona batentzako oinarrizko errentaren gehieneko zenbatekoa	485	510	561,60	633,30
Batez besteko zenbatekoa, espediente bakoitzeko	445,06	493,88	499,78	519,34
Batez besteko aurrekontu-gastua, onartutako eskabide bakoitzeko	2.492,34	2.765,73	2.888,73	2.965,43
Onuradunen batez besteko kopurua, unitate hartzaile bakoitzeko	2,34	2,36	2,31	2,33
Oinarrizko errentaren programako batez besteko egonaldia (hileak/urtea/jasotzailea)	7,02	7,7	7,26	-

Horiek azterturik, hauxe nabarmendu nahi dugu:

- Pertsona baten oinarrizko errentaren gehieneko zenbatekoa arian-arian hurbildu zaio lanbide arteko gutxieneko soldadari, eta baliokidetasuna 2010ean lortu da.
- Espediente bakoitzeko batez besteko zenbatekoa ehuneko 17 igo da 2007 eta 2010 bitarte.
- Izapidetutako eskabide bakoitzeko aurrekontu-gastua ehuneko 19 igo da epe horretan.

- Unitate hartzaile bakoitzeko batez besteko pertsona kopurua bere horretan mantendu da: 2,3 pertsona inguru.

- Oinarrizko errentaren programan egoteko denbora ere bere horretan mantentzen da: zazpi hilabete inguru.

### 14. Oinarrizko errentaren eskatzaileei buruzko azterketa

Ondoko taulan ageri da eskatzaileen bilakaera, generoa eta talde nagusiak kontuan hartuta.

	2007	2008	2009	2010eko abuztua
Eskatzailea, generoaren arabera				
Gizonezkoak	1.740	2.650	5.595	3.442
Emakumezkoak	2.443	3.149	5.171	3.325
Eskatzailea, taldeen arabera				
Gutxiengo etnikoa	944	1.027	1.396	730
Etorkinak	2.022	3.236	6.201	3.912
Autoktonoak	1.217	1.536	3.169	2.125

Ikus dezakegunez, hasiera batean, prestazio hau eskatzen zutenen artean, gizonezko baino emakumezko gehiago zegoen; azken bi urteetan, aldiz, joera hori aldatu da, eta emakumezkoak baino gehiago dira gizonezkoak.

Laguntza hori eskatzen duten taldeei erreparatuta, eskatzaile guztien ehuneko 50 baino gehiago dira etorkinak.

15. Oinarrizko errentaren hartzaileak, Nafarroako eremu geografikoen arabera

Ondoko taulan ageri da emandako oinarrizko errenten bilakaera, Nafarroako eremu geografikoen arabera.

	2007		2008		2009	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Emandako errentak, eremu geografikoen arabera						
Ipar-mendebaldea	103	3,11	128	2,83	249	2,86
Ipar-ekialdea	58	1,75	81	1,79	130	1,49
Lizarra	271	8,19	398	8,80	729	8,36
Tafalla	280	8,47	342	7,56	653	7,49
Tutera	527	15,94	734	16,22	1.678	19,25
Iruña	1.583	47,87	2.082	46,02	3.677	42,19
Iruñerria	485	14,67	759	16,78	1.600	18,36
Guztira	3307	%100	4524	100%	8716	%100

Ikus daitekeenez, emandakoen ehuneko 60 inguru Iruñerriari dagozkie.

2009ko ekitaldian aurkeztutako eskabideak eta emandakoak eremu geografikoen arabera aztertuz gero, ondokoa da emaitza:

Geografia eremua	Emandakoen %, aurkeztutakoen gainekoak
Ipar-mendebaldea	68
Ipar-ekialdea	74
Lizarra	81
Tafalla	81
Tutera	80
Iruña	83
Iruñerria	81
2009ko batez besteko %	81

Alegia, Nafarroa osoko batez bestekoak baino txikiagoak dira ipar-mendebaldeko eta ipar-ekialdeko eremuetako ehunekoak.

Laburbilduz, eta azken ondorio gisa, Comptos Ganberak uste du:

- Oinarrizko errenta prestazio ekonomiko bermatu bat da, baliabide ekonomikorik ez duten familientzako, eta helburu du familia horien oinarrizko beharrak asetzea eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak gizarteratzea eta laneratzea.

- Egungo egoera ekonomikoan, prestazio hori botere publikoen funtsezko tresna bat da, gizarte-ko pertsonarik ahulenen babesa ziurtatze aldera.

- Egoera ekonomiko horrek, eta enpleguaren gainean izan duen eraginak, berekin ekarri dute nabarmen igotzea oinarrizko errentaren laguntza jasotzeko eskabideak eta horrek dakarren gastu publikoa, eta, hartara, administrazio publikoak



behartuta daude erantzun zalu eta eraginkorra ematera, laguntza horien eskabideak azkar izapidetzeaz denaz bezainbatean.

- 2009ko eta 2010eko ekitaldietan, oinarrizko errentaren eskabideek halako bitik gora egin dute aurreko ekitaldiekin alderatuta, eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-gastua hirukoiztu egin da. 2010eko gastua 30 milioi ingurukoa izanen dela aurreikusten da.

- Egoera honi ahalik eta txukunen erantzuteko, Departamentuak prozedura-eskuliburu bat taxutu du, laguntza horiek emateko oinarrizko izapideak arautzen dituena. Taxututako prozedura hori, ordea, konplexua da, barruko nahiz kanpoko iturrien bidez berrikusi eta egiaztatu beharreko agiri ugari aurkeztea eskatzen du, kalkulu eta balorazio ekonomikoak egitea eskatzen du eta laneratze eta gizarteratze akordio bat sinatu beharra dakar berekin; indarrean den bitartean baldintzak betetzen jarraitzen dela egiaztatu eta zaindu behar da orobat.

- Gizarte Gaietako Departamentuaren giza baliabideak eta baliabide materialak nabarmen igo diren arren, igoera hori ez da aski izan ziurtatzeko beteko dela, oro har, laguntza horiek Departamentuan izapidetzeko epea, zeina Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroaren arabera 45 egunekoa baita.

- Onuradunen ehuneko 50 inguru etorkinak dira.

- Prestazio horren zenbatekoari dagokionez adierazi beharra dago LGSren baliokidea izatera iritsi zela 2010ean, Gizarte Bazterketaren aurkako Planean ezarritako helburuarekin bat.

- Administrazioak laguntzak ebazteko zain egoerik ez duten larrialdi-egoerei erantzuteko, Departamentuak Iruña-Tuterako Cáritas-ekiko lankidetzak akordioa egin du, erakunde horrek laguntza horien lehen ordainketa aurrera dezan. Neurri horren bitartez irtenbide bat eman nahi zaie egoerarik larrienei.

Horregatik guztiagatik, Comptos Ganberak ondoko gomendioak egiten ditu:

*Oinarrizko Errenta arautzen duen 120/1999 Foru Dekretua gaurkotzeko prozesua bukatzea*<sup>(6)</sup>.

*Laguntza publiko orotan gertatzen denez, oreka bilatu behar da, administrazioak laguntza izapidetzeko eta emateko zalutasunaren eta bali-*

*bide publikoen aplikazio orotan eskatu beharreko bermeen artean. Baina oinarrizko errentaren onuradunek bizi ohi dituzten baldintza bereziei erreparatuta –egungo egoera ekonomikoak hori guztia areagotu baizik ez du egin–, Administrazioak ahalginak biderkatu behar ditu kudeaketaren arloan, eta laguntzak emateko fasean, agian, lehentasuna eman beharko lioke malgutasunari, administrazio-zurruntasunaren edo kontrol prebentiboaren aldean. Horrek ekarriko luke, jakina, laguntza horiek emateko egungo araudia eta prozedura berraztertea.*

*Kontzesioari dagokionez malgutasunez jokatzeke ildo horretan*<sup>(7)</sup>, Departamentuak oinarrizko errentaren hartzaileen gaineko gibekeko ikuskaritza edo kontrol lana areagotu beharko luke, ziurtatze aldera neurri hori, politika eta justizia sozialeko neurri hori, benetan behar duten pertsonen aplikatzen zaiela.

*Oinarrizko errentaren kudeaketa-prozesuak hobetzeko prozesuarekin jarraitzea eta aztertzea, kasua bada, oinarrizko errentaren kudeaketako organoen gaur egungo giza baliabideak aski diren. Horrek guztiak helburu bikoitza du: laguntza horiek izapidetzeko epea egungo eskarien arabera izatea eta ongi aplikatzen dela ziurtatzea.*

*Bilatzea oinarrizko gizarte zerbitzuak laguntza horiek izapidetzeari eta kontrolatzeari dagokienez gehiago inplikatzeko.*

*Nafarroako Gizarteratze Plan berria onesteko prozesua bukatzea*<sup>(8)</sup>, gizarte bazterketan egoteko arriskua duten taldeen egungo arazoak jasoko dituen, bai eta arazo horiek konpontzen saiatzeko behar diren neurriak ere.

Bestalde, 2011ko otsailean iraungiko da Aldi Baterako Langabezia- eta Laneratze-Programa, zeina Estatuko Enplegu-Zerbitzu Publikoak finantzatua baita eta helburu baitu estaldura ekonomikoa ematea, aparteko izaeraz, langabeziako sorospena edo kotizaziopeko prestazioa agortua duten langabeei. Iraungitze horren ondorioz, oinarrizko errentaren eskabideak areagotuko bide dira Nafarroan, eta baliabide berekiekin finantzatu beharko da.

Azkenik, Comptos Ganbera honek ondoko hausnarketak egiten ditu oinarrizko errentaren arazoaz denaz bezainbatean:

(6) Paragrafo hau aldatu da, 5. alegazioaren ondorioz.

(7) Paragrafo hau aldatu da, 6. alegazioaren ondorioz.

(8) Paragrafo hau aldatu da, 7. alegazioaren ondorioz.

Oinarrizko errentaren egungo ereduak elkartasun baldintzatua du oinarri; alegia, gizartea solidarioa da zenbait kolektiborekin, baina baldintza batzuk ezartzen ditu horretarako.

Halatan, oinarrizko errentaren helburu nagusia da ezinbesteko laguntza ekonomiko bat ematea familia ahulenei, baina laguntza hori emateko baldintza da, neurri handi batean, onuradunak gizarteratzea eta laneratzea. Halere, azken urteotako esperientzia ondokoa ari da erakusten:

- Enplegarritasunari begira oztopo ia gaindiezinak gertatzen dira zenbait kasutan: adin bateko kolektiboak, familia-arazoak edo osasun mentaleko arazoak dituztenak, etorkinen zenbait talde, eta abar.

- Laneratzeko aukera, egiazki, laneko profil onena duten pertsonen dute soilik. Alegia, lana aurkitzeko baldintzarik egokienak dituztenek soilik aurkitzen dute lana.

- Egungo egoera ekonomikoa areagotzen ari da oinarrizko errentaren eta onuradunak lan egiteko duen gogoaren arteko lotura, ezen ez oinarrizko errentaren eta lanpostu bat aurkitzearen artekoa.

- Oinarrizko errentaren kudeaketak dakarren administrazio-konplexutasuna eta laneratze-planetikoa lotura.

- Oinarrizko errentaren kudeatzaileek duten prestakuntzan, oro har, diziplina humanistak eta sozialak dira nagusi, ezen ez enplegu-politika aktiboetarakoak.

- Nolabaiteko kritika soziala dago programa horiek mendetasuna eta parasitismoa faboratzen dutela eta.

Horrenbestez, zenbait egile iradokitzen ari dira arian-arian hautsi behar dela prestazio ekonomikoaren eta laneratze-neurrien arteko lotura, halako moduan non prestazio ekonomikoa kotizaziorik gabeko pentsio izatera igaroko bailitzateke eta laneratze-neurriak enplegu-zerbitzu publikoek garatuko bailituzkete, baliabide publikoak egoera ekonomikoa zinez zailak konpontzeko erabiltze aldera<sup>(9)</sup>. Hau da: une honetan, enplegarritasun-arazo handiak dituzten taldeei eskainitako enplegu apurretako bat aurkitzeari lotzen baldin bazaio prestazio ekonomiko bat, foru erkidegoko botere<sup>(10)</sup> eta erakunde publikoek gizarte-prestazio horren egungo araudia birformulatu edo berraztertu beharko dute, gutxienez ere.

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako iza-pideak bete ondoren.

Iruñean, 2011ko urriaren 25ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

(9) Paragrafo hau aldatu da, 8. alegazioaren ondorioz.

(10) Paragrafo hau aldatu da, 9. alegazioaren ondorioz.

## 1. ERANSKINA. OINARRIZKO ERRENTA JASOTZEN DUTEN FAMILIEI BURUZKO TXOSTENAREN LABURPENA.

2010eko urtarrilean aurkeztu ziren Oinarrizko errenta jasotzen duten familiei buruzko III. txosteneko datuak, zeina departamentuaren aginduz egin baitzen.

Egiturazkoak edo tartekakoak	Aztertutako epean zehar modu jarraituagoan onuradun izandakoak (2001-2009)
Koiunturazkoak	2008-2009 ekitaldietako hartzaileak

Alegia, koiunturazko familiak dira oinarrizko errenta 2008an eta 2009an soilik jaso dutenak, aurreko urteetan ez baitute halako laguntzarik jaso; horien aurrez aurre daude, berriz, egiturazkoak; hau da, laguntza hori 2001etik 2009ra bitarteko epean modu jarraituagoan jaso dutenak, krisi ekonomikoari zuzenean lotuta egon gabe.

Izendapen hori soilik datza familiek oinarrizko errenta jaso duten denbora bereiztean, eta ez faktore soziologikoetan (bazterketaren ezaugarriak, zaugarritasuna, arriskua, eta abar). Finean, horren bidez ikasi nahi dena da krisi ekonomikoak oinarrizko errentaren hartzaileengan izandako eragina.

Txostena egiteko, Gizarte Gaietako Departamentuak emandako onuradunen datu-basea (SIPSS basea) baliatu da informazio-iturri gisa, bai eta Foru Erkidegoko gizarte ekimeneko zenbait entitatek emandako informazioa ere.

Txostenaren ondorioetatik ondokoak nabarmentzen ditugu, txosten honi dagokionez:

Txosten horrek azpimarra jartzen du krisi ekonomikoak oinarrizko errentaren onuradunengan duen eraginean; hartara, familia "egiturazkoak edo tartekakoak" eta "koiunturazkoak" bereizten dira, eta honela definitzen dira:

### 1. Datu orokorrak


2009ko apirilean, 2.452 familian jasotzen zen oinarrizko errenta (2.492 unitate hartzaile). Horietako 1.207 familiak (ehuneko 49) 2008tik aitzina soilik jaso dute; hau da, koiunturazkotzat jotzen dira. Gainerakoak –ehuneko 51; alegia, 1.245– egiturazko familiak ziren, edo lehenago ere (2001-2009 epean zehar) onuradun izandakoak.

Egiturazko familien artean nabarmendu beharra dago 382k –ehuneko 31– sei urtez edo gehiago jaso dutela oinarrizko errenta 2001etik 2009rako epean, eta 100 familiak –ehuneko 8– etengabe jaso dutela laguntza bederlatzi urteotan.

Koiunturazkoei dagokionez, lau hartzailetatik batek jaso du oinarrizko errenta bi urteetan, eta lautik hiruk, berriz, urtebetez.


### 2. Hartzailearen profila:

Sexua. Egiturazko familien ehuneko 60 emakume batek ordezkutzen du; koiunturazkoetan, berriz, ehuneko 48.



Adina. 26 eta 45 urte bitarteko pertsonak osatzen dituzte egiturazko familien ehuneko 66 eta koiunturazkoen ehuneko 68. 56 urtetik gorakoak dira egiturazkoen ehuneko 11; koiunturazkoetan, berriz, ehuneko 5.

Emakumez osatuta daude egiturazko laguntza eskatzen duten 25 urtetik behetikoen ehuneko 90.




Iturria: Comptos Ganberak egina, SIPSSren datu-basea oinarri.

**Kolektibo-motak:**

- Ijitoen gutxiengo etnikoak egiturazko familien ehuneko 27 egiten du, eta koiunturazkoetan ehuneko 9ra jaisten da.

- Etorkinek egiturazko familien ehuneko 45 egiten dute, eta koiunturazkoen ehuneko 65.

- Autoktonoek gisa horretako ehunekoak egiten dituzte egiturazko nahiz koiunturazko familietan: ehuneko 28 eta 27, hurrenez hurren.



Iturria: Comptos Ganberak egina, SIPSSren datu-basea oinarri.

Etxearen deskribapena. Ondoko taulan kopurua aztertzen da, hartzaile motaren (egiturazkoakoiunturazkoak) eta kolektiboaren arabera.


	Bakarrik bizi diren pertsonak	Gurasobakarrekoak	Seme-alabarik gabeko bikoteak	Seme-alabak dituzten bikoteak	Bestelakoak	Guztira
Koiunturazkoak	Autoktonoak	51,3	31,5	29,2	14,6	26,6
	Ijitoen gutxiengo etnikoa	3,5	7,5	6,9	20,0	8,6
	Etorkinak	45,1	61,0	63,9	65,4	81,6
	Guztira	100	100	100	100	100
Egiturazkoak edo tartetakoak	Autoktonoak	65,4	27,6	11,5	6,3	28,0
	Ijitoen gutxiengo etnikoa	6,3	26,7	48,1	55,0	26,9
	Etorkinak	28,3	45,8	40,4	38,7	70,7
	Guztira	100	100	100	100	100

Egiturazko familietan, bakarrik bizi diren hamar pertsonatik sei autoktonoak dira; hamar gurasobakarretik hiru etorkinak dira; seme-alabarik gabeko hamar bikotetik bost eta seme-alabak dituzten hamar bikotetik bost ijitoen etniakoak dira.

Koiunturazkoetan, bakarrik bizi diren hamar pertsonatik bost autoktonoak dira; hamar gurasobakarretik lau etorkinak dira; seme-alabarik gabeko hamar bikotetik hiru eta seme-alabak dituzten hamar bikotetik hiru etorkinak dira.

Adingabeak. Egiturazko etheen ehuneko 15etan 3 adingabe edo gehiago dago (ijitoen gutxiengoan, ehuneko 50etan); koiunturazkoetan, berriz, ia ehuneko 10ekoa da portzentajea.

Adingabeak dituzten familia horietan –batik bat, gurasobakarretan– emakumezkoek duten protagonismoa nabarmendu behar da (ehuneko 77 egiturazkoetan eta ehuneko 67 koiunturazkoetan); adingaberik gabeko etxeetan gizonezkoak dira nagusi, ehuneko 59 egiturazkoetan eta ehuneko 70 koiunturazkoetan.



Iturria: Comptos Ganberak egina, SIPSSren datu-basea oinarri.

Jarduera ekonomikoa. Nabarmena da iraupen luzeko langabeek pisu handiagoa dutela egiturazko familietan (ehuneko 29) eta jarduera irregularrak egiten dituztela koiunturazkoetan (ehuneko 12).

Egiturazkoen ehuneko 29 eta koiunturazkoen ehuneko 39 orain dela urtebete daude langabeziari (sorospena jasotzen edo ez).


Egoera juridikoa. Egiturazko familietan, ehuneko 60 autoktonoak dira, eta beraz ez dute lan-baimenik behar; ehuneko 18 egoitza-baimena duten etorkinak dira, eta ehuneko 12, azkenik, egoera irregularrean edo egoitza-baimenik gabe daude.

Koiunturazko etxeetan, arestiko ehuneko horiek 49, 26 eta 19koak dira, hurrenez hurren.

. Alokairua eta berralokairua dira modurik erabilienak egiturazko nahiz koiunturazko familietan: ehuneko 53 eta 63, hurrenez hurren.

Egiturazkoen ehuneko 19 eta koiunturazkoen ehuneko 14 beren etxebizitza ordaintzen ari dira, eta etxebizitza galtzeko arriskua handia dela ikus daiteke.

Egiturazkoen ehuneko 7k eta koiunturazkoen ehuneko 4k ordainduta daukate etxebizitza. Egiturazko horien ehuneko 16ren kasuan hondatuta dago etxebizitza, eta koiunturazko kolektiboan ez dago hondatutako etxebizitzarik.



Iturria: Comptos Ganberak egina, SIPSSren datu-basea oinarri.


Arazo edo zailtasun nagusia. Egiturazkoetan, arazo nagusia heldu da langabeziatik –ehuneko 29–, gaixotasunetik –ehuneko 26–, egokitu ezinezetik –ehuneko 23– eta egoera irregular batetik –ehuneko 19–. Koiunturazko etxeetan, arazoa langabeziatik –ehuneko 35– eta irregulartasunetik –ehuneko 34– heldu da.

Lurraldearen arabeko banaketa. Familien bi tipologia horietan, hamarretik sei Iruñerrian bizi

dira, eta laurdena baino gehixeago Goi Erriberan eta Tuteran.

Iruñeko auzoei eta Iruñerriari dagokienez, Alde Zaharrak eta Arrotxapeak hartzen dituzte egiturazko familiarik gehienak (horietako bakoitzak ehuneko 18); koiunturazkoak Arrotxapean (ehuneko 17), Txantrean (ehuneko 15) eta Alde Zaharrean (ehuneko 14) metatzen dira nagusiki.

Ondoko taulan ageri da mila erroltatutik zenbaterik jasotzen duten oinarrizko errenta:



Iturria: Comptos Ganberak egina, SIPSSren datu-basea eta Estatistikako Institutu Nazionalaren biztanleen errolda oinarri

### 3. Nafarroako gizarte-entitateek emandako datuen azterketa

Zenbait gizarte-entitateek emandako informazioaren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa egin da.

#### Azterketa kuantitatiboa

Ondokoak nabarmentzen dira kolektibo horiek gizarte-entitateetan duten tokiari dagokionez:

- Zenbatekoak: Oinarrizko errenta jasotzen duten 760 pertsona (ehuneko 30) joan dira gizarte-entitateen batera. Horietatik ehuneko 70 igaro da bakar batetik, eta gainontzekoak, bitatik edo gehiagotatik.

- Emandako zerbitzuak: Emandako zerbitzuen ehuneko 60 orientaziora eta enplegura bideratuak dira, ehuneko 15 gai juridikoetara eta gainontzekoak osasun gaietara, etxebizitzara...

- Ehuneko 51 gizonezkoak dira eta ehuneko 49 emakumezkoak; ehuneko 75ek 26 eta 45 urte bitarte dituzte. Artatutako emakumezkoen ehuneko 13k 25 urte baino gutxiago dituzte, gizonezkoen ehuneko 3ren aldean.

- Kolektiboak: Ehuneko 90 etorkinak dira (Magreb-etik eta Latinoamerikatik heldutakoak nabarmendu beharra dago), ehuneko 8 autoktonoak dira eta ehuneko 2 ijitoen etniakoak.

- Jasotako laguntzaren izaera: Artatutako pertsonen ehuneko 58k modu koiunturalean jasotzen dute laguntza, eta ehuneko 42k, berriz, modu egiturazkoan.

- Hona horiek dituzten arazoak: Ehuneko 43k irregulartasun-arazoak ditu, eta ehuneko 32k, berriz, langabezia-arazoak.

#### Azterketa kualitatiboa

Hartailearen profilari dagokionez, zenbait ondorio ateratzen ahal dira:

- Ez dute oinarrizko errentaren eta baliabideen gaineko informaziorik, edo informazioa eskasa da.

- Laguntza lehenengo aldiz jasotzen duten pertsonak eta, krisi ekonomikoaren ondorioz, ahulezia egoera gainditu ostean halako egoeran berriz dauden pertsonak dira.

- Etorkinak eta 65 urtetik goitiko pertsona autoktonoak daude krisiak gehien ukitutako taldeen artean.

- Kolektibo berriak azaldu dira: bertan bizitzen zenbait urte daramaten eta hizkuntza ez dakiten etorkinak, enplegu eske dabilzan emakume afrikarrak, tratu txarrak jasandako emakumeak, Errumaniako ijitoak, 25 urtetik beheitikoak...

- Familia, krisiari aurre egiteko funtsezko baliabide gisa. Funtsezko motelgailu bat da; hortaz,

garrantzitsua da neurriak abiaraztea, familia- eta gizarte-sarerik gabeko pertsoneri dagokienez.

- Enplegua sortzea, krisiari aurre egiteko funtsezko tresna gisa, nahiz eta konponbide bakarra izan ez.

- Oinarrizko errenta laguntza positiboa da, baina ez da aski. Politika aktiboak eta pasiboak elkar lotzeko neurriak ezarri behar dira.

- Positibotzat jotzen da Errentako Gizarteratze-etxea izeneko programa pilotua, baina neurri gehiago ezarri behar dira.

- Prestakuntza-eskaria areagotu da.

- Administrazio publikoaren disfuntzioak konpondu behar dira, batez ere izapidetzeko epeei dagokienez.

- Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuk inplikatu beharra, batez ere prestakuntza-aren eta enpleguaren gaiei dagokienez.



**2. ERANSKINA. GIZARTERATZE-ADIERAZLE NAGUSIAK.**

	2007	2008	2009	2010
Gizarteratze taldeek artatutako pertsonak	192	362	467	
Babestutako enplegu soziala	679	748	716	750
Interes sozialeko erkeidgo-enplegua			263	427
Laneratzeoko laguntzak (persona kopurua)	22	22	18	
Banakako lan-proiektuetarako laguntzak.	0	0	0	0
"Acceder" Programa	99	108	152	
Zailtasun bereziak dituzten pertsonak laneratzea	1.296	1.093	0	0
Gizarteratzearen arloan aritzen diren irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko entitateentzako diru-laguntzak.	33	32	33	41
Toki entitateentzako diru-laguntzak, gutxiengo etnikoekiko esku-hartze sozialeko proiektuetarako			8	9
Gizarteratzeoko ekipoak etxebizitzaren arloan	1400	1300	565	
Gizarteratzeoko etxebizitzaren programa (erositako etxebizitza kopurua)	46	20	24	
Gizarteratzeoko laguntza bereziak (artatutako familia-unitateen kopurua)	446	671	1.154	635
Familia- eta gizarte-integratzaileko laguntzak.	31	38	39	19
Okupazio-zentroak (ikaspostu kopurua)	136			
Moldagabezia sozialean dauden helduen akonpainamendua	25	25	25	25
Egoitzako arreta	15	16	16	16
Diru-laguntzak, nahierara erabiltzeak, komunitate terapeutikoan tratamendua jasotzen dutenentzat (erabiltzaile kopurua)	42	29	34	26
Oharra: Zenbat programaren kasuan, ez dira 2010eko datuak eman, ekitaldiaren amaieran baizik ezin baitira modu koherentean lortu.				

## **BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK**

Zure eskaintzari erantzunez eta Oinarrizko Errentaren Kudeaketari buruz Comptos Ganberak eginiko behin-behineko txostena dela-eta, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak ondoko alegazioak egin nahi ditu:

Lehenik eta behin, Ganbera horretako auditorek Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiko langileekin izandako tratu adeitsu eta profesionala eskertu nahi dugu.

1. 14. orrialdean esaten da Pentsioen Bulegoa 2010eko martxoan atxiki zitzaioela Gizarteratzearen Atalari. Atxikitzea, berez, 2007ko abuztuaren gertatu zen, orduan onetsi baitzen departamentuaren egungo egitura organikoa.

2. 18. orrialdean, gure ustez, ñabartu behar da langile teknikoaren lana oinarrizko osagaia dela laguntzen ematea erabakitzekeko prozesu horretan. Egia da oso garrantzitsua dela, baina administrazio arloko langileen lana ere garrantzi handikoa da; izan ere, izapidetzen diren eskabideek administrazio-lan zama handia eragiten dute, aurkeztu beharreko dokumentazioa egiaztatzearen ondorioz eta dokumentazio hori osatu gabe dagoenean egin beharreko errekerimenduen ondorioz. Onetsitako prozedura-eskuliburuaren eta ezartzen ari diren kudeaketa arloko hobekuntzen bidez administrazio-lana areagotu nahi da; izan ere, teknikariek egiten duten lanaren zati bat administrazio arloko langileek egin dezakete. Langile teknikoaren arloa ehuneko 36 indartu da, eta administrazio arloko langileena ehuneko 57, hain zuzen ere kudeaketa-prozedura berri horiek aplikatzearen ondorioz.

3. 21. orrialdean, Cáritas-ekiko hitzarmenez ari delarik, 2010eko datuak biltzen dira, eta horiek Departamentuak baliozkotu gabe daude oraindik. Hortaz, uste dugu ez liratekeela txostenean jaso behar. Kontuan hartu beharra dago hitzarmenean soilik jasotzen direla oinarrizko errenta ematearen aldeko txostena duten pertsonen egindako aurrerakinak, ordainketa izapidetzen den bitartean egindakoak, eta hori ez da eragozpen Cáritas-ek, entitate pribatu bat den aldetik, hitzarmenetik kanpo, egoki irizitako beste aurrerakin batzuk egin diezazkien oinarrizko errenta jasotzeko eskubiderik ez duten pertsonen.

4. 23., 24., 25., 26. eta 27. orrialdeetako tauletan zehaztu egin beharko litzateke 2010eko datuak zein eperi buruzkoak diren, partzialak dira eta.

5. 29. orrialdean oinarrizko errenta arautzen duen foru dekretuari buruz ari delarik, proiektua

bukatuta dagoela adieraz dadin eskatzen dugu, falta den izapide bakarra Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluarena delako (otsailaren 15erako eginen da deialdia), Nafarroako Gobernari aintzat har dezan igorri aurretik. Orobat eskatzen dugu aipa dadila proiektu horretan koiunturazko eta egiturazko onuradunak bereizten direla (txostenean aipatzen diren iraunkorrak, hain zuzen ere) eta orobat hartzen dela kontuan 24 hilabetetik gorako berritzei aplikatu beharreko prozedura.

6. 29. orrialdeko azken lerrokadan uste dugu argitu behar dela txostenean ikuskaritza indartu beharra aipatzen denean adierazi nahi dela laguntzak ematerakoan kontrola leunduz gero indartu beharko litzatekeela ikuskaritza, zeren, bestela, kontrol-jarduketak bikoiztuko genituzke.

7. 30. orrialdean, argitu nahi dugu prestatzen ari den plana "Nafarroako Gizarteratze Plana" deituko dela, eta ez "Gizarte Bazterketaren aurkako Plana", Europako joera berriei bat, alderdi inklusiboak, ezen ez baztertzailak, azpimarratzea bilatzen baita.

8. 31. orrialdean, nahiz eta hein handi batean gure egiten dugun hausnarketa, uste dugu egungo baliabide publikoak ez direla gutxi, ezta oinarrizko errentaren kasuan ere; izan ere, beharrian guztiak ase arte handi daiteke kontusaila, eta egin behar dena da dauden baliabideak optimizatu eta hobeki koordinatu, baliabideak ugariak eta askotarikoak baitira. Orobat uste dugu aipatu beharko litzatekeela sistemaren erreforma estruktural honek Nafarroako Parlamentuaren inplikazioa eskatzen duela, lege-aldaketa egin beharra dakarrelako.

Berriz ere eskertu nahi dugu Ganberaren profesionaltasuna eta txostenari alegazioak egiteko aukera eman izana.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 20an.

Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusia: Marta Álvarez Alonso

## **AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA**

Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren zuzendari nagusiak behin-behineko txostenari eginiko alegazioak jaso eta aztertuta, aintzat hartu ditugu alegazioak, eta, hortaz, kasuko lerrokadak aldatu ditugu txostenean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas



